

uk

83. zenbakia / 2005 ekainak 19



GETXO JAZZ XXIX

UZTAILA 1-5 JULIO 2005



DAVID DORUZKA TRIO

NO LIMIT

FRANK WÖSTE TRIO

FELIX FROMM SEXTETT

FOUREJAZZ

LISTEN!

CONTRERAS & TUTUSAUS Qt.

TERESA ZABALZA Set + Carme Canela

ESTER ANDUJAR GROUP

MARIA JOAO-MARIO LAGINHA

JOHN SCOFIELD QUARTET

BALDO MARTINEZ PROYECTO MIÑO

PIRINEOS JAZZ ORQUESTA

RICHARD GALLIANO TRIO



Bizkaiko Foru
Aldundia
Auzoak

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



EUSKO JAIALDIA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BARRA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



Des moztu gutxi

ELCORREO

bbk=

INFORMAZIOA 944 914 080 • INFO@GETXOKULTURA.COM • WWW.GETXO.NET



MINISTERIO DE EDUCACIÓN
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



metro bilbao



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Areetako organoa. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Aimar Hidalgo. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algorta, 1964-2005.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Eleder Acedo, A. M.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Getxo Rugby Taldea, Jose Mari Martinez *Bubu*.
26. ERREPORTAJEA. Kirol erretransmisio bat, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Funanbulista Areetan (1994), Juan Luis Markaidea.
30. BERBETAN. Pablo Martin, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Frankismo garaiko *bajadak*.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Tropofilms.
43. MUSIKA. Getxoko Jazzaldia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Agota Kristof. Liburuen erreseinak.
45. KIROLA. Getxoko ESAT taldea.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Jaime Vilallonga, Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Esaterako, Algortako Tanke tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Erandioko Goi-Alde dantza taldea, 1965. Bittor Egurola.
54. AITORMENAK. Eva Argiñano, Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Getxo, 1964 (Udal Liburutegia)



30 Pablo Martin

Berbetan

Sortzez asuatarra, gaur egun Sopelanan bizi da. Amnensty International erankundearen Bilboko koordinatzaileagaz egon gara.



46 Jaime Vilallonga



21 Mankomunitateko Euskara Zerbitzua



24 Getxo Rugby Taldea



34 Fotografia



54 Eva Argiñano



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila (Asier): 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Ariaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bitor Egurota, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcua, Esti Ezkerra, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>Getxo UDALA</p>	

	<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>	
<p>Leioako Udala</p>		

	<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Erandioko Udala</p>		

	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>Bizkaiko Foru Aldundia</p>	

	<p>Aldizkari honek Eroski Fundazioaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>EROSKI FUNDAZIOA</p>	

	<p>aldizkaria etxean jaso nahi baduzu</p>
<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>	

gugeu

Amnesty International

Aldizkari hau egiten dugunok pertsonak ere bagara eta zuok bezala dagoeneko udako oporrak hartzeko "kuentatrasa" egiten gabiltza. Bitartean lan egitea tokatzen zaigu eta gure eguneroko ahalegin horren fruitua eskuetan darabilzuen azken UK hau da. Ohi bezala bazterrak astindu eta han hemenka galdezka ibili gara aldizkaria ahalik eta eduki interesgarriekin betetzeko. Eta esaerak dioen moduan, bilatzen duenak aurkitzen du.

Zenbaki honetan makina bat gai jorratu dugu, baina gainerakoei garrantzia kendu gura barik, Amnesty International (AI) taldeko Pablo Martin kideari egin diogun elkarrizketa nabarmendu gura genuke. Izan ere, Pablarekin berba egin eta gero, munduan itxaropenik badagoela sentitu dugu, bere zilbor-hestea baino urrunago begiratasun duten pertsonak badagozela jakin dugu: zintzoak, kontzientziadunak, solidarioak... azken finean kategoria eta ganorazko pertsonak.

Amnesty International mundu osoan egiten du lan giza eskubideen urraketen aurka. Euren 40 urteetako ibilbidean milaka presoren askatzea lortu dute, mehatxupean zeuden pertsonen babesa eskaini diete, heriotza-zigorra hainbat herrialdetan bertan behera uztea lortu dute... Baina seguru asko euren lorpenik handiena mundu zabalean giza eskubideen urraketen berri ematea izan da. Gainera, elkartasun sare globala eta aktiboa eraiki dute. Azpimarragarria ere bada euren ekimenak abiatzeko AI-k ez duela inongo gobernuren dirulaguntzarik onartzen. Euren indarra, azken batean, erakundeak dituen milioitik gorako lagunen eskuzabaltasunean eta konpromisoan oinarritzen da.

Txaplo! 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat.

Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero irakurri > **berria**



AREETAKO MESEDEETAKO ELIZA, 2005eko MAIATZA

Areetako organoa / Temperatura aldaketak eta utzikeriak gaixotu zuten 1968an eraiki zen Mesedeetako elizako organoa. Musika tresna bere onera ekartzeko Alemaniatik (Bonn hiritik zehazki) berenberegi hiru aditu etorri zitzaizkigun: Hans Peter Klein, Johannes Vleuyels eta Dominik Haubrichs. Jakin ahal izan dugunez Areetako organoa bikaina da: 7.000 hodontik gora, 67 erregistro eta 4 teklatu ditu. Gaur egun merkatuan milioi bi eurotik gora balioko luke. Eta guk jakin barrik! m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Igarotze errritua

Egunkarietan irakurri dudanez, aurten 11.200 ikasle inguruk egin dute Euskal Herrian unibertsitatean sartzeko hautapropa. Doluminak horiei guztiei. Egunotan izerdi ugari botako zuten unibertsitatean sartzeko “nahikoa maila” dutela erakusteko ahaleginetan. Horrelaxe saltzen da, behintzat, unibertsitatean sartzeko hautaprobek beharra (?). Egia esan, nik ez dut horretan gehiegi sinisten. Proba honek ez du ezer frogatzen, ikaslearen indarra eta lasaitasunari eusteko gaitasuna jokoan jarri besterik ez du egiten eta. Hala ere, badu, nire ustez, bertute handi bat, izan ere, gaztarotik heltzarorako igaroaldi horretan norberak lehen aldiz somatzen du garrantzi handiko bidegurutze baten aurrean dagoela. Ordura arte, oro har, dena da lasaitasuna, dena poza. Gaztea ez da etorkizunarengatik gehiegi kezkatzen. Harik eta proba honetara iritsi arte. Orduantxe galdetzen dio bere buruari lehen aldiz: “eta gainditzen ez badut zer?”. Sentipen hori ona da. Gaztea heltzen ari den seinale. 4

IRITZIA

Zer behar da herri honek bakea lortzeko? Galdera hau luzatzen ari gatzaizkio eskualdeko hainbat laguni. Oraingoan Aimar Hildalgok Getxoko Alkate jaunaren artikuluari erantzunez, espetxetik bialdu digun iritzia doakizue.

Zer behar da herri honek bakea lortzeko?

UKren 80. alean, Inaki Zarrhoa Getxoko alkatearen gutuna irakurri dudanean, haserrea eta lotsa sentitu dut. Euskal Herrian bakea lortzeko eman behar diren urratsez diharduzu. Euskadi Ta Askatasuna erakunde abertzale armatuaren indarkeriaz solik aritu zara, nahiz eta aitortu, estatuek ere hura erabiltzen dutela. Errezagoa al da ETaren indarkeria kritikatzeko, besteen indarkeriaren aurka egitea baino, agian, zure alderdiaren polizia autonomikoa indarkeria horren partaide delako? Ertzaintza, Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Frantziako polizia beti ibili dira herri honen askatasunaren alde lanean gabiltzonon aurka: alderdi politikoen egoitzak mihatuz eta itxiz; pertsonak espiatuz, jarraituz eta jipoituz; abertzaleak atxilotuz ondoren komisaldegietan inkomunikatzeko –honek dakarren guztiarekin–; euskal egunkaria eta aldizkariak isilaraziz... Hau guztia argi eta garbi erakutsi zuen zuen (PNVren) poliziak 2002ko irailaren 14an Bilbon egindako manifestaldiaren aurkako jarrerarekin. Hura lotsa!

Demokrazia eta askatasunaren bizi garaile baiezatzaten duzu. “Kupoaren” (\$\$\$) aurka egiten dutenean bakarrik nabarmentzen da demokrazia

eza? Alderdi politikoa (abertzaleak betiere) legez kanpo utzi dituzte Espainiako estatuan, euskararen kontrako erasoak –Iparraldean zein hegoaldeko zati batean ez da ofiziala, eta beste zatian 2. mailako hizkuntzatzat jotzen dute–, 18/98 bezalako epaiketa politikoa ematen dira, zuek (EAJ-PNV) horren ondo ezagutzen dituzuen muntai polizialak “normaltasunez” ikusten dira Espainiako auzitegietan eta komunikabide gehienetan, torturatzaleei lanpostu hobeagoekin ordaintzen dizkiete euren “lan txukunak”... eta luzaro jarrai dezaket. Hau guztia al da zuretzat “demokrazia eta askatasuna”?

«Goazen alderdi politikoen interesak alde batera uztera, eta denon artean, marko juridiko berri bat adostera»

“Mehatxupean dauden pertsonen askatasuna eta lasaitasuna eman behar zaie, biktima guztiei barkamena eskatu, onarpena eta hurbiltasuna” esaten duzuen, guztioz ari zara, ala ETaren indarkeriak sortutako egoeraz baino ez zabilta hizketan? (Indarkeria honetaz soilik hitz egiten duzunez...) Presoak, senideengana hurbiltzea aipatzen duzunean, ez al zituzten euskal preso politikoez seniderik, zure alderdiak Felipe Gonzalezen (PSOE) gobernuari sakabanaketa proposatu zionean? Gaur egun, gizarteak gaizki ikusten duelako, sakabanaketa salatzen duzunean zintotasunez ari zarete?

Alderdi espainiar abertzaleek gure herriari hitza ukatzen jarraituta ere, ETA desagertu behar dela diozu, ondo, baina zein litzateke PNVren bide bikain hori, gure herriari hitza indarraren bidez ukatzen dioten horiei aurre egiteko? Nik uste, zure alderdia espainiar sistemari oso inplikatu dagoela, batez ere arlo ekonomikoan eta horregatik ezinezkoa egiten zaio kontra egitea. Eta tristura datorkit, jakin badakidalako, zuen alde bozkatzeko duen askok, abertzaletzat duela bere burua.

Goazen alderdi politikoen interesak alde batera uztera, eta denon artean, marko juridiko berri bat adostera, non ideia guztiak aurrera eramán daitezkeen, ez soilik defendatu. Horrela egongo baita benetako bakea, justizian oinarritutako bakea. 4

Aimar Hildalgo Lertxundi
(euskal preso)



GETXOKO UDAL LEIURUTEGA



ASIER MENTXAKA

photoshop > Gorlizko itsas-argi berria



Irudiak eta manipulazioak: A. M.

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTA 1964-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

[talaia]

begizorrotz > sk8 UKn erakusketaren aurkezpen eguna

Ekainaren 1eko iluntzean sk8 UKn erakusketaren aurkezpena egin genuen Algortako Satistegi kafean. Jakingo duzue, erakusketa fotografiko honek Carlos Terrerosek ateratako eskualdeko skater onenen argazkiak biltzen ditu eta UK aldizkariaren ekimena izan da. Makina bat lagun bildu zen Satistegira erakusketaren zabaltze egunean; batetik, argazkiak ikustera; eta bestetik, Alatzek (Satistegi kafeko nagusia) musu-truk eskaini zituen pintxoak eta ardaoak dastatzera. Eskualdeko skater eta argazkilariak gehiengoa ziren bertaratutakoen artean, eta denak bat etorri ziren: argazkiak primerakoak dira. Zorionak, Carlos! ^m



Aurkezpen eguneko hiru une

ekainak 23 > gaurik laburrena



San Juan egunaren bezperako eguna (ekainak 23) urteko egunik luzeena da, edo beste modu batera esanda, gaurik laburrena daukana. Antzinako ohiturari jarraituz, aurten ere, eskualdeko bazter guztietan suak piztuko dira udari ongietorria emateko. Guk, nonbait tristurarako joera kronikoa daukagulako, ekainaren 24tik aurrera egunak gero eta laburragoak izango direla daukagu gogoan, eta beraz, negua gero eta hurbilago. ^m

kale izendegia > Neguriko Enrique Aresti



Artziniegan 1852an jaio zen Enrique Aresti Torres Sociedad de Terrenos de Neguri elkarte anonimoaren sortzaileetako bat eta bazkideetako bat genuen, Valentin Gorbeñagaz batera (beraren berri eman genizuen atal honetan UK-ko 76. zenbakian), eta berak bezala Negurin dauka kalea. 1882ra arte Mexikon egin zuen behar, eta gero Bilbon paratu zuen bizilekua. Esparru askotako hainbat enpresa sortu zituen: paper-fabrikak, trenbideak, erretxina-lantegiak, eta berun eta eztainu-lantegiak, besteak beste. Politikan ere jardun zuen: lau urtez (1898-1902) Bizkaiko Foru Aldundiko presidente izan zen; eta 1907an, berriz, herrialde honetako gobernadore. Hurrengo urtean, Conde de Aresti izeneko titulua sortu zuten bere omenez. 93 urte bete berri zituenean zendu zen 1946an Bilbon. ^m

Argazkian, Neguriko Enrique Aresti kalea

[erretratua]



Agurraren orduan, Elederek atzera begiratu du eta zenbait une polit gogoratu ditu: Athleticegaz kontratua sinatu zuen eguna, Bartzelonaren aurka jokaturako Errege Kopako finalerdi hura... Eta bidean lagun bi: Iñaki Saez eta Miguel Angel Lotina.

Eleder Acedo > Arenas Clubeko jokalaria

Taldekielek "aitite" esaten diote; izan ere, Getxoko Arenas Club futbol taldeko jokalaririk "zaharrena" dugu (irailean 37 urte beteko ditu). Leioan bizi den Eleder Acedok (Algorta, 1968) talde gorri-beltzean jokatu du aurten, eta kapitainetako bat izan da. Maiatzaren 29an denboraldiko azken partida jokatu zuen (Arenasek 3 eta 0 irabazi zion Laudiori eta sailkapenean zazpigarren postuan geratu da); ekainaren 1ean, berriz, azkenengo entrenamendua eduki zuen Gobelako zelaian. Baina egun bi horiek ez ziren nolana hikoak izan: Elederen azkenengoak futbolari profesional legez, hain zuzen. 19 urte zeuzkanetik futbola izan du ogibide, "ia bizitzaren erdia". Erromoko taldean hasi zen eta harrezkeroztik Bilbao Athletic, Eibar, Merida, Sestao, Las Palmas, Numantzia, Barakaldo eta Arenas Club taldeetan jokatu du; beraz, ondotox daki zer den Lehen, Bigarren eta Hirugarren Mailetan ibiltzea. "Egon naizen leku guztietatik gauza onak atera ditut, eta lagun oso onak egin ditut aldagelen barruan zein kanpoan". Arazo fisikoak direla-eta hartu du futbola uzteko erabakia. "Gainera, denbora gehiago eskaini gura diet familiari eta beharriari. Serio hartzen baduzu, kirol honek denbora asko kentzen dizu". Oraindik ez dauka oso argi futbolari lotuta jarraituko duen: "Aagian entrenatzaile titulua ateratzen ahaleginduko naiz". ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Nora eroan zaborra?

Getxoko hiri hondakinak tratatzeko lehiaketara Zabalgarbiren **errausketa proposamena** baino ez zen aurkeztu, eta **atzera bota** da EB-Berdeak, PP eta PSEren kontrako botoakaz

Oraindik Getxoko Udalak ez daki nora eroango dituen eta zein tratamendu emango dien udalerriko hiri hondakin solidoei, baina laster erabaki beharko du. Izan ere, udal zabortegeiak urte amaierarako edo itxita egon beharko luke. Gainera, zabortegiko ingurunea berreskuratzeko eta Hiri Hondakin Transferentziarako Planta eraikitzeke Europako diru-laguntza jaso du Udalak eta zaborraren tratamendurako konponbidea ahalik eta arinen aurkitzen ez badu laguntza hori itzuli beharko du.



Argazkian, Getxoko zabortegia

Getxoko Udalak udalerriko hiri hondakin solidoak tratatzeko zabaldu zuen lehiaketa publikora Zabalgardi enpresa baino ez zen aurkeztu, eta Zabalgardi errausketa sistema proposatzen du. Udaleko kontratazio mahaia 100 puntutik 33 bakarrik eman zizkion Zabalgardi eskaintzari. Hasieran zaborraren tratamendua 25 urterako esleitu gura zuten, gerora 8 urtera murriztu zuten epea. Bestalde, zaborren tratamendu zerbitzua ordaintzeko Udalak zaborraren tasa %85 igoko ei du. Horrek guztiak hainbat ikamika piztu du bai Gobernu Batzordearen barruan, bai oposizioko alderdiakaz. Azkenean, maiatzeko Udalbatzan PSE, PP eta EB-Berdeak alderdien kontrako botoak atzera bota zuten Zabalgardiaren proposamena. Horren ondotik, Udalean or-

dezkaririk ez badaukate ere, Getxo Bizia plataformak ere errakustaren aurka dagoela argi adierazi du. EAJ, EA eta EB-Berdeak osatzen dute Getxoko Udalean Gobernu Batzordeko hirukoa, eta Ezker Batuak Zabalgardiaren proposamenari emandako ezetzak krisia eragin ei du hirukoan.

«Bi hilabetetan zaborra tratatzeko auziari konponbidea aurkitzea espero dute»

Ondorioak

Hala ere, ez da hori bakarrik zaborraren trataerarako auziak izan dezakeen ondorio bakarra. Bolueko zabortegia betetago; eta ingurune hori berreskuratzeko

eta Larrañazubiko Hondakin Transferentziarako Planta (hondakinak txikitu eta zapaldu egiten dira han errazago garraiatzeko) eraikitzeke Getxoko Udalak Europako diru-laguntza jaso du (aurrekontuaren %80). Alabaina, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez badira, eta horietako bat zabortegia ixteko epea da, Udalak diru-laguntza itzuli egin beharko du. Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak azaldu duenez, *“2 hilabetetan-edo zaborraren auziari konponbidea aurkitzea”* espero dute.

Errausketak ingurumenean eragiten dituen ondorio latzak kontuan edukita eta jasotako ezetza gogoan hartuta, laster topatu beharko dute Getxoko zaborra tratatzeko beste bide bat. m

Oinarrizko Errenta 271 getxoztarrek jaso zuten iaz, eta 206 lagunek jasotzeari utzi



Argazkian, Gizarte Zerbitzuen egoitza. Informazio gehiago: www.getxo.net

Udaleko Gizarte Zerbitzuen 2004ko Memoriako datuen artean udalerrian Oinarrizko Errenta laguntza 271 lagunek jaso zutela ageri da. Halaber, laguntza jasotzen zuten beste 206 getxoztarrek eskuratzeari utzi edota euren egoera aldatu zuten. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Iñaki Urkizak (EB-Berdeak) azaldu duenez, *“datu horrek zera adierazten du: jende askok daukan aurreiritzia ez dela zuzena, hau da, Oinarrizko Errenta jasotzen duten kideek hilerio “soldata” jasotzera ohitu egiten direla, horregatik eroso bizi direla eta hor-*

tik irteteko ahaleginik egiten ez dutela uste du jende askok, eta hori ez da egia”. Gizarte Zerbitzuen helburua baliabide gutxi daukatenak gizarteratzen laguntzea da, horregatik diru-laguntzez gain prestakuntza eta lan mundura sartzeko baliabideak ere eskaintzen zaizkie. Bestalde, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan 2001etik itxaron zerrendarik ez dagoela jakinarazi zuen Urkizak: *“Iaz 400 etxetan eskaini zen urgazpena eta urtez urte eskaria gora doa”*. Zerbitzuak urtean etxe bakoitzeko 5.323 euroko kostua dauka. m

UDAN UME SAHARUIAK GETXORA ETORTZEKO 10.000 EURO

Aurten ere Getxoko Udalak eta Sahararen aldeko ATFAL elkarteak hitzarmena sinatu dute, horrela ume saharaiak udalerrian uda pasatzeko programa finantzatzeko 10.000 euro jasoko ditu elkarteak. 9 neska-mutil helduko dira Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetatik uztaila eta abuztua familia getxoztarretan pasatzera. Hainbat dira umeontzako prestatu dituzten irteera, ekitaldi eta jaiak, adibidez: Arrasaten (Gipuzkoa) uztaillaren 17an egingo den jai erraldoia edo San Inazio jaietan ipiniko den *haima*.

ESTALKIDUN ZEIN ESTALKI BAKO IGERILEKUA

Kanpoko ugerleku zein igerileku estalia izan daitekeen Euskal Autonomia Erkidegoko igerilekurik handienak zabaldu ditu dagoeneko ateak. Hau da, neurri olinpikoak daukazan Fadura igerilekuari 5 minututan jarri edo kentzen den estalkia ipini diote, horrela eguraldi onagaz zein txarraz erabilgarri egongo da. Anemometroa (haize-neurgailua) ere badauka eta haizeak 35km/o baino gehiago hartzen duenean automatikoki ixten da estalkia. Estalkia ipintzeko lanetan 600.000 euro gastatu ditu Udalak.

URKOARI 19.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA

Uribe Kostako Kontsumitzaileen Elkarteari 19.000 euroko laguntza emango dio Udalak. Alde batetik, elkartearen beraren jarduerak aurrera eramateko; eta bestetik, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak baino zerbitzu juridiko zabalagoa emateko eta bulego horren opor garaian URKOAK ordeko zerbitzua eskaintzeko.

GAZTEEN SORMENA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA SUSTATZEKO LEHIAKETA

2005

EUSKAL HERRIKO II. GRAFFITI LEHIAKETA



Lehiaketaren finala uztaillaren 16an Getxon ospatuko da
Lehiaketaren oinarriak: www.topagunea.org



Euskara

bultzatzeko eta ikasteko
175.000 euro

Getxoko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, euskara ikastaro-atarako eta euskararen erabilera bultzatzeko antolatuko diren jardueretarako diru-laguntzak emango ditu aurten ere. Laguntzok beraz bi motatakoak dira. Batetik, ikastaroetarako laguntzak daude (100.000 euro) hurrengozi zuzenduta: horretarako baliabide ekonomikorik ez daukatena, lan merkatuan sartzeaz dauden ikasleak, 12 urteko baino gutxiagoko umeen gurasoak, haur zaintzailak, pediatrian-eta lan egiten dutenak, aisialdiko begiraleak, dendariak... Beste alde batetik, elkarteen euskarazko elkitaldientzako laguntzak daude (75.000 euro): Euskararen Eguna-eta, teknologia berrietako egitasmoak... Amaitzeko, Euskara Zerbitzuak itzulpen eta aurkezle eskaldunen doako zerbitzua eskainiko du, baita errotuluak euskaratzeko edota UEU-ko ikastaroetara joateko laguntzak ere. m

Euskara Zerbitzua: 94 466 00 02



Errotuloak euskaratzeko laguntzak ere badaude

ZUGAZARTEKO CISCO ETXEAN LAU IZARRETAKO HOTELA EGINGO DUTE

Manuel Maria Smithek 1909an eraiki zuen Cisco ezizeneko etxea (Zugazarte etorbidea, Areeta) 2006ko amaierarako edo hotel bihurtuko dute. Lau izarretako hotelak 20 gela bikoitz eta lagun bakar batentzako 10 gela izango ditu. "Cisco", "iduri" euskaraz, ikatz mota bat da eta eraikina erregai hori gordetzeko erabili zenez, hortik hartu zuen izena Zugazarteko etxeak.

Amaia Arce > Necocheako (Argentina) Euskal Etxera joango da
"Dantza, txalaparta eta txistua irakatsiko ditut"



Argazkian, Amaia Arce

Euskal Gazteriaren Kontseiluak antolatzen duen Hator Hona programaren barruan, uztailean 9 gazte euskaldun Argentinako Euskal Etxe batera joango dira, euren artean bizkaitar bi: euretako bat Amaia Arce algortarra da. Hilebeteko egonaldia egingo dute gazteek Necochean: Buenos Aiestik 500km-ra eta La Platatik 200 km-ra.

—Hator Hona egitasmoan parte hartzen zelan animatu zara?

—Iaz izan nuen programaren berri, baina orduan ez ninduten hartu. Txikitatik ikusten nuen telebistan Boise herria (Idaho, AEB), han euskaldun asko bizi direla... eta aitari esaten nion joan nahi nuela, hura ezagutu gura nuela. Proiektu hau ikusi nuen eta pentsatu nuen: "ez da Boise, baina Argentinan ere euskal jatorriko jende asko dago". Gu eskolak ematera goaz hara, nik dantza, txalaparta, pandero eta txistua emango ditut, gainontzekoek trikitixa, pilota, pala, euskara, sukaldaritza, euskal mitologia... Joateko baldintzetako bat esperientzia edukitzea da, eta lan egiteko eta irakasteko gogoak, ez dute titulurik eskatzen. Nik hemen ere ikastaro batzuk eman ditut -txalaparta, dantzak ikastoletan...- eta gogoko dut. Familia batek hartuko gaitu eta ostalua eta jaten emango digute. Eskolak

arratsaldez emango ditugu, eurek goizetan lan edo ikasi behar dutelako, han negua da eta. Beraz, goizak eta asteburuak libre dauzkagu. Goazenen artean bilera egin genuen elkar ezagutzeko, eta pentsatzen gabiltza astelehenetik eguenera lan egitea, eta libre gaudenean bidaiatxoren bat antola dezakegula, hori bai gure poltsikotik ordainduta.

—Bidaiarako diru-laguntzarik ez daukazue?

—Esan legez, ostalua eta jatekoa emango digute, baina Madrilerako bidai, hegazkin txartela eta gainontzeko guztiak gure kontura doaz. Nik Getxoko Udalarir diru-laguntza eskatu diot baina oraindik ez dut erantzunik jaso. Bidai ez da merkea, hegazkinak 1.000 euro inguru balio dezake, eta ni ikaslea naiz

"Ostatua eta janaria emango digute; bidai, hegazkin txartela... gure kontu"

oraindino, ez nabil lanean, neuretzako behintzat garestia da. Programak aukera polita eskaintzen du, hori ezin ukatu, baina aukera garrestia ere badela uste dut.

—Zeren bila zoaz Argentinara?

—Beste ikuspuntu batetik euskal mundua zer den ezagutu nahi dut; hainbeste belaunaldi igarota zelan dakusaten gaur egun Euskal Herria. Eta Argentina ezagutzeko gogoak ere badauzkat, zelan ez. m

Skaterren festarik magikoena

Poolparty jaia patinatzaileen hitzordu eta topaleku San Juan bezperako azken 5 urteotan



Argazkian, iazko jaiaren irudi bat. Informazio gehiago: www.skatepoolparty.com

Arrigunagako skateparkean, urteko egunik luzeenean eta gaurik laburrenean, skaterren gogoek isiotzen dute sua eta gurpilak erretzen dituzte patinatzen. Poolparty festaren eguna da ekainaren 23a, skatea, kultura eta arteak bat egiten duten jaia.

Azkenengo 5 urteotan, Arrigunagako La Kantera skateparkean poola (skate-igerilekua) eraiki zenetik San Juan bezperan ospatzen da Poolparty. Aurten festa eguerdiko 12:00etan hasiko da eta gauagaz batera amaitu. Ume eta jubenilen II. Hawk skate txapelketa, DJen musika emanaldiak, pooleko erakustaldiak eta saio libreak, herriko taldeen kontzertuak, bideo proiektzioak, su ikuskizunak... iragartzen ditu egitarauak.

Poolparty jaialdia 2.000 urtetik hona

antolatzen da, baina aurretik ere prestatzen ziren jaiak eta txapelketak La Kanteran. Gogoan izango dute skater eta zale askok esaterako "Arrigunagako jaitsiera", aldapan behera patinaren jaia eta jabe zeintzuk ziren erakusten zuen ekimena.

La Kantera 1987tik

La Kantera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikitako lehenengo skate parkea, 1987an egin zen Txus Dominguez skater ezagunaren eta Javier Labad arkitektoaren ekimenez. 2000 urtean Europako lehenengo poola izan dena eraiki zen bertan eta ostean, Udala ingurunea urbanizatzeko proiektuagaz zebilenean, skaterako egokitzea lortu zuten eta bide batez zaharberitze lan batzuk egin zizkieten. m

BALKOITIK BALKOIRA ETA JAIALDI MUNDIALA

Algortako Bertsolari Eskolak antolatuko dituen hurrengo bi ekitaldiak bertsozaleak kale egin ezin dezakeen horietako hitzorduak dira. Hilaren 17an (22:00) Portu Zaharrean egingo den Balkoitik Balkoira saioan Sustrai Kolina eta Etxahun Lekue gazteek jardungo dute. Bestalde, uztailean 8an (22:00) Bihotz Alai plazan VII. Bertsu Jaialdi Mundiala egingo da eta bertan hurrengo bertsolariak jardungo dute: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Aitor Mendiluze eta Xabier Paia.

AGURRA DANTZA TALDEAREN ERAKUSTALDIA SAN JUAN EGUNEAN

Agurra dantza taldeak euskal dantza emanaldia eskainiko du San Juan egunean, hilak 24. Kalejira arratsaldeko 7:00ak aldera irtengo da Telletxetik eta Alango plazainoko bidea egin ostean han eskainiko du euskal dantza ikuskizuna.

BIZKAIKO ZUBI ESEKIARI OHOREZKO AIPAMENA

Europako Kontseiluak Ohorezko Aipamena eman die Bizkaiko Zubi Esekariari eta Muskizko "EL Pobal" burdinolari. Bi instalazioak "Pirineoetako Burdinaren Ibilbidea" egitasmoaren barruan daude. Ekimen horrek hainbat helburu dauka: siderurgiaren ondareak aztertu, zaharberritu eta zaintzeaz gain euren artean ibilbide kultural bat sortzeko asmoa. Egitasmo honetan hainbat herrialdeko erakunde hartzen dute parte: Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Herria, Andorra, Akitania, Languedoc-Rousillon eta Kataluniako erakundeak, hain zuzen. Hala ere, aipamen hori ez da Bizkaiko Zubi Esekia (1893) Europatik jasotzen duen lehenengoa, besteak beste, 2002an Europako Kultura-Ondareko kontserbazio saria jaso zuen, eta hamaika dira Bizkairatu dituen sariak.

cianoplan Reprografia

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Gall - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koaderneketa •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermaketak •



Badatoz San Juan jaiak

Ekainaren 23an San Juan **sua piztearekin batera** Leioako Jaiak hasiko dira. Hainbat egunetan herriko kaleak **fiesta** giroz beteko dira

Jaietako antolatzaile Asier Elorduik dienez, ordea, aurreko asteetan ere ekitaldirik egongo da: "Jaiak izatez 23tik 26ra badi-ra ere ekainaren 12tik aurrera hainbat jarduerak izango ditugu". Ekainaren 12ko Jota Txapelketa edo hilaren 18an "Coti" abeslari argentinarrek eskainiko duen kontzertua horren adibide ditugu. Programari dagokionez "osotasuna" azpimarratu du kultur koordinatzaileak. "Izan ere, adin guztientzako eta era guztietako ekintzak egongo dira".

Herriko txoko guztietan gozatu ahal da jai giroaz. Kontzertuak eta Erromeriak Barandiaran Institutuan, Errekalde eta Ikea Barri Plazan; haurrentzako ekintzak Euskal Etxeen Plazan (puzgariak, tailerrak, pailazoak, ...); gazteentzako jarduerak Ikea Barri Plazan eta Institutuan arratsaldeko ordutegian. Berritasunik aipatu digu aurreko urteekiko Asier Elorduik: "Zapatuan bi gauza berri. Alde batetik Txakur Erakusketak Peruri auzoan; bestetik, Dominikar Errepublikarekiko Elkartzasun Eguna eta horren inguruko ekintzak egun osoan".

Ekainaren 23an, beraz, botako dute jaietako emango dien txupinazoa. Aurretik, arratsaldeko 8etan, Castores Arrantza Eskola Elkarteak pregoia irakurriko du herritarren aurrean. m



Pregoa Castores Arrantza Elkarteak irakurriko du

Hainbat urtetan herrian egindako lanagatik festetako pregoia irakurtzeko ohorea izango du Castores Arrantza Elkarteak. Hain zuzen, San Juan egun batean, 1994. urtean, sortu zen eta Elkarte presidentea Valentin Turradok azaldu digunez, "ordutik udaletxeak antolatzen duen ekintza guztietan parte hartu dugu; Gabonetan, esaterako, erregez ere mozortzen gara". Elkarteak 160 bazkide ditu, horietatik 50 umeak direlarik. Arrantza kirola (arrainak uretara bueltatzen dituzte) erakustez gain ingurugiroarekiko errespetua bultzatzen dute.

Ekitaldi batzuk

Ekainak 23, eguna

20:15. Koadrilen Jaitsiera.
21:30. Eskupilota partida profesionalak.

Ekainak 24, barikua

20:30. Euskal Etxeen plazan haurrentzako: Kuko, Truko eta Bolenwaider.
20:30. Kirolaren Gala Boulevardean.

Ekainak 25, zapatua

21:30. Joxe Miguel Barandiaran Institutuan Kontzertua: Travelling Brothers eta The Boogie Punkers.

24:00. Umore Ikuskizuna Aldapa Auditorioan: *Monólogos*

Ekainak 26, domeka

22:00. Azken Traka eta Jaien amaiera Udaletxean.

Maritxu Teilagorri taldea >

Jai herrikoiak bultzatzeko



Argazkian, taldeko kideak batzar baten ostean

Jai herrikoi, euskaldun, ez sexista eta parte hartzailea bultzatzeko Maritxu Teilagorri taldea sortu da. Ekimena, ordea, ez da berria. Aurretik Txosna Batzordeak antolatzen zuen txosnetako programa, eta egoera hausnartu ondoren bultzada berria ematea erabaki dute batzordea osatzen zuten taldeek. Alde batetik, aurreko urteetako jai ereduaren oinarrituta antolatu dituzte jarduerak, eta bestetik, herriko elkartei programaren osaketan parte hartzeko eskaintza egin diete. Maritxu Teilagorriko bozeramaile Alaitz Villatek azaldu digunez, "herriko elkartei gutunak bidali genizkien gure azpiegitura eta bitartekoak eskainiz beren ekimenak bultzatzeko". Erantzuna "positibotzat" jo dute. "Esate baterako, dantza taldekoek akelarrean lagunduko dute eta Sahararen Aldeko Taldearekin batera saha-

nauien aldeko elkartzasun eguna prestatu dugu larunbaterako". Talde berriak jai herrikoien aldeko aldarria egiten du. Herri eragileen eta herritarren parte hartze zabalago baten aldeko festa bultzatzeko, hain zuzen, atxikimendu eta sinadura kanpaina abiarazi dute. Momentuz 206 pertsonen eta 20 elkarten sinatu dute. Bestetik, Txosnagunea aldatu nahi izan du Udalak, bertan etxebizitzak eraiki behar zituztelakoan. Azkenean Udalak beharrak atzeratzea lortu du eta txosnak betiko lekuan –Mercedarias Ikastetxe atzeko larrean– kokatuko dira. m

Programa (besteak beste)

Ekainak 23: 22:00. Tapia eta Leturia eta Akelarrea. **Ekainak 24:** 19:00. Jai Herrikoien aldeko kalejira: rock maratoia, bertso poteoa. **Ekainak 25:** 23:00. Kontzertua: Banda Batzoki eta Nuukat. **Ekainak 26:** 20:00. Kontzertua: Karidadeko Benta. 22:00 Afaritxoa eta itxiera.

PLATER-TIRO
ETA EHIZARAKO
KIROL-ELKARTEA



TABERNA-KARTUTXO DENDA

Posta kutxa 33 LEIOA
Tel: 94 633 81 59

uRondo

Estankoa

jai zoriontsuak leioztar guztioi!

Sabino Arana 67
T: 94 464 92 33 - LEIOA

KURKUDI
HERRIKO TABERNA

Bokata goxo-goxoak
eta beroak



Jaietan ere presoak
etxera

Sabino Arana, 82 behe LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsoleak, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



moda gaztea
opariak

Torreña 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Killis taldea >

Errekastoetako arraintxoak etxean hazi

Orain dela hiru urte sortu zen **killi** izenez ezagutzen diren **ciprinodontidae** familiako arrainen munduarekin maitemindutako en elkarte hau. Lehenago beste talde batzuetan eta **akuikulturaren inguruan ibilitakoak** ziren


Baina gure herrian sortu bazen ere, nazioartean hedatzeko asmoz eratu zuten eta, gaur egun, munduko hamaika herrialdetako bazkideak ditu: lehendakaria argentinarra da, lehendakariordea portugaldarra, idazkaria mallorcarra eta diruzaina donostiarra. Gu Erandioko taldekoekin egon gara killiak zer diren jakiteko eta ekainaren 24, 25 eta 26an Astrabuduan egingo duten nazioarteko biltzarren berri jasotzeko.

Killiak mundu osoko erreka eta putzuetan bizi diren urteko arrainak dira, gehienak txikiak 5-10 zentimetro ingurukoak. Penintsulan bi espezie bakarrik omen daude, Levante aldean eta babestuta. Herrialde batzuetan babestuta daude, bestetan ez, eta espedizioak ere antolatzen dituzte espezie berrien bila joateko. Elkarrekin kideek killiak ugaltu eta munduko punta batetik bestera bidaltzen dituzte arrautzak nahiz arrainak berak. Trukea da nagusi.

Killiak ez dira normalean komertzializatzen diren arrainak. Ez dute arrain-ontzi berezirik behar, ez inolako tramankulurik ura bero mantentzeko. Gure etxeko tenperatura nahikoa dute eta erraza omen da killiak haztea. Arrain-ontzietan jarritako landareen artean ezkututzen dira eta ez dira hain erraz ikusten, baina sano politak dauzkate Erandioko taldekoak.

Errepideak zabaltzean, urbanizazioak egin, biotopoak desagerrarazten ditu gizakiak eta habitata iraunaraztearen garrantzia azpimarratu du Jose Luisek.

“Gu bildumagileak garela esan daiteke,



Argazkian, Killis taldeko lagun batzuk. Informazio gehiago: www.killistaldea.org

baina gugatik ez balitz espezie asko desagertuko lirateke. Gaur egun espezie asko dira euren habitata galdu dutelako naturan desagertu egin direnak. Egunen batean, leku jakin horretako espezieak berreskuratu nahi badituzte, gurea bezalako elkarrekin jo beharko dute. Guk kontserbazio lan hori egiten dugu.”

«Ekainaren 24, 25 eta 26an nazioarteko biltzara egingo da Astrabuduan»

Arrautzak bildu, jaiotzeko baldintzak prestatu, jaten eman, hazten ikusi... Biz-pahiru urte bizi ohi dira gehienak. Lotura eta erakarmen handia sortzen dutela diosku Andresek, Erandioko taldeko beteroenak.

Normalean izoztutako jaki prestatuak

erabiltzen dituzte, baina jaki bizidunak gustukoago dituztela eta zomorro ugari biltzen dute horretarako: artemia, harrak, uretako arkakusoak, kakalardoak, euliak, kilkiak...

Killis Taldeak nazioarteko bigarren biltzara antolatu du ekaineko azken astebururako Josu Muruetan eta bertan bilduko dira Espainia, Portugal, Frantzia, Uruguai, Herbehereak, Ingalaterra nahiz Belgikatik etorritako partaideak. Ehun inguru dira hoteleko erreserba egina dutenak. Eskarmentuz ikasi dute hemen ondo jaten dela, eta antza, gustura datoz.

Arrainen erakusketa eta lehiaketa, hitzaldiak, arrain eta osagarrien azokaxoa, txangoak, bazkideen batzara eta abar dituzte egitarauan. m

Beatriz Bernal >

Astrabuduko Hogar Extremeñoeko zuzendaritza batzordeko kidea

“Erronka zaila da karteletan-eta euskara erabiltzea, baina konpromisoa hartu dugu”



Argazkian, Beatriz Bernal

Barakaldon jaio zen 28 urteko hezitzaile hau eta ia bizitza osoa daroa Astrabuduko Extremadurako Etxean sartuta. Gaztetan etorri ziren bere gurasoak gurera Cacereseko Hinojal herritik, eta Hinojalekoak dira elkarrekin gaur egun dituen 216 bazkideetatik erdia. Denboraren joanean helburuak eta egoerak nabarmen aldatu direla esan digu Beatrizek eta oraintsu sinatu dute hitzarmena Udalarekin elkarrekin euskarari lekua egiteko. Bera da zuzendaritza batzordeko kide euskaldun bakarra.

—Zer da Hogar Extremeño elkarte, zein da zuen lana?

—Extremadurako jendearen bilgunea da gurea eta familia handia garela esan daiteke. Lehen etorkinak ginela eta geure kulturaz harro ginela esaten genuen. Orain helburuak aldatzen ari dira, gure kultura ezagutzera

emateaz gain auzora zabaltzea nahian gabilta, konpromisoa hartu nahi dugu hemengo herriarekin.

—Udalarekin hitzarmena sinatu duzue. Zer konpromiso hartu duzue?

—Nire ustez oso konpromiso garrantzitsua. Karteletan-eta euskara erabiltzeko konpromisoa hartu dugu eta zaila da. Gure elkarte-

“Gure kultura ezagutzera emateaz gain elkarte auzora zabaltzea nahian gabilta”

an adineko jendea da nagusi eta hasieran kostatu egin zaie ulertzea zergatik egin dugun Udalarekin hitzarmena, baina ez da bakarrik euskara erabiltzea. Nabaritzen dugu kanpotik elkarte itxi modura ikusten gaituztela eta hori aldatu egin nahi dugu. Egoitza hau Extremadurako zatitxo bat da, baina Euskal Herrian gaude eta hemengo ere hartu behar dugula uste dut.

—Aurten 25 urte betetzen dituzuela eta ospakizunetan ari zarete.

—Bai, ekaineko asteburu guztietan ditugu ekitaldiak, musika, dantza, hitzaldiak, erakusketak, txangoak... Eta ekainaren 18an gure ekitaldirik kuttunena, Akarlandako parkean egin ohi dugun konbinentziatzeko jardunaldia. Euskal Herrian dauden 16 Extremadurako Etxetako jendea biltzen gara eta elkar ezagutzeko eta topatzeko aukera paregabea da. Bi mila edo hiru mila pertsona biltzen gara eta gure folkloreakin batera miga, tortilla, gazpatxo eta bestelakoak dastatuz egun polita igarotzen dugu. Extremaduraren gorai-pamen eguna dela esan daiteke. Baina hemengo elementuak ere sartzen hasi gara, hemengo musika tradizionala, dantzak eta abar. Aurrerantzean bide hori gehiago jorratu nahi dugu. Ez dugu ahaztu behar non gauden. m

iritzia



Jorge Martin Luque

Dtir na mBascach

Lehenagoan, Gatikako bertso afari batean, Norvegiako euskaldun bat ezagutu nuen eta oraintsu beste irlandar euskaldun batzuk Ondarroan. Hau harridura! Neure ingurukoek euskara ikasi nahi ez eta kanpotar askok ikasi du dagoeneko! Horren adibide dira BERRIA egunkariak noizbehinka argitaratzen dituen elkarrizketak.

Ondarroako Arrigorri ostatuan pasatu genuen aurreko asteburu bat gaeliko pixka bat ikasten aipatutako irlandar euskaldunekin. Han ezagututako irlandar batzuk euren burua euskaldundu ondoren hasi dira gaelikoa, euren herriko hizkuntza, ikasten. Hori bai gauza xelebrea!

Hemen, Euskal Herriko jende askok ez du euskara ikasi nahi eta kanpotik datozenek geuk baino interes gehiago azaltzen dute gure hizkuntzarekiko.

Zer sentituko du hemengo erdalduen batek irlandarez edo edozein kanpotar euskaldun inguratuta euskaraz barra-barra entzuten duenean? Ea horrek euskara ikasteko gogoia sortarazten dion. Oxala!

Euskara geure burua, geure herria, mundua hobeto ezagutzeko modua da eta euskararen munduaz gozatzeko eta bizitzeko bidea da. Nola bestela gozatu Irigarayren hitzez edo Amurizaren bertsoez eta Benito Lertxundiren musikaz, edo Asisko Urmenetaren burutazioez edo ...?

Neuk ikasitako azken gauza da, artikularen izenburuak Euskal Herria esan nahi duela. Euskaldunen Herria gaelikoz horrela adierazten da.

Go raibh mile maith agat David. 4

SOPELANAKO UDAL EUSKALTEGIA

EGA 2005 ikastaroa

Irailaren 2etik 30era
Ostirala 8:30etatik 12:30etara
Martirako prestaketa: 1500
Matrikula open ekoizpena 60k 24k

Erleku Urtebetetean, 10
Tel./fax: 94 676 21 34
www.kalategia@sopelana.net

4 bide pinturak

KIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

01 SOPELNET S.L.

Jokoak sarean • Txapelketak • Internet • Txat • E-mail • Lanak •

ordenagailuen salmenta zerbitzu teknikoak kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax:94

[sopelana]jaietan]

Sanpedroak ate joka

Jaiak **hilaren 25ean** hasi eta **uztailaren 3ra** arte luzatuko dira



Orain dela hiru urteko jaien hasikera. Egitarau osoa: www.sopelana.net

Sopeloztarrak ekainaren 25a noiz heldu irrikan daude, orduan hasiko dira-eta San Pedro jaietarako salda prestatzen, eta edabe magikoa beharko du izan 2 astetako festari eutsi gura badiote. Hala ere, jaien hasierako txupina ez da hilaren 28ra arte aireratu. Kolore askotako ikuskizunak daude iragarrita: musika, antzerkia, kirola, txapelketak... eta tarte honetan ezin direnak azaldu. Horra batzuk: San Pedro egunean, esaterako, Barinatxe eta Uribe Bazterra bandakaz kalejira, eskupilota txapelketako

«Jaietako egitarau osoa Udalaren webgunean dago ikusgai»

finalak eta Ilarpeko zinemaren eskaintzak. Biharmunean, tai txi eta gimnasia erritmiko erakustaldia, umeentzako Zirika Zirkus ikuskizuna eta Gravity Lock eta Keikeren kontzertuak daude iragarrita. Uztailaren 1ean Irujo-Gofi III eta Titin-Pascualen arteko eskupilota partida egongo da frontoian eta txosnetan zeltiar musika eta Sei

Urte eta Triki Takeren kontzertuak. Hilaren 2 eta 3an umeentzako bitsaren jaiak egongo da Zipiriñen eta herriko nagusiek bazkaria egingo dute. Eta uztailaren 3an, Deabru Beltzak taldearen *Les diables noirs* ikuskizunak emango die amaiera jaiak. m

Ekitaldi batzuk

- **8 mujeres.** Antzerkia. Hall Kulturala. Hilak 25, 19:30.
- **Txirindularitza lasterketa.** Gazteak. Hilak 26, goizean zehar.
- **Bake eta umorezko autobusa.** Plazan. Hilak 28, 21:15.
- **Patada en la papada, Nun eta Voodoo-ren kontzertuak.** Txosnetan. Hilak 29, 23:00.
- **Paint Ball.** Zipiriñen. Uztailak 1, 11:00.
- **Brasilerrisimo ikuskizuna.** Kaleetatik. Uztailak 1, 20:30.
- **Euskal Jaiak.** Txosnetan. Uztailak 2.
- **Cocidito Madrileño.** Urko kiroldegian. Uztailak 2, 22:00.
- **XXXV. Bakailao txapelketa.** Udaletxean. Uztailak 3, 10:00.

[sopelana]

Frontoi eta eskalada-murru berriak inauguratu dituzte Iturrieta parkean



Eskalada-murruak edo rokodromoak 9 metroko zabalera eta 7 metroko altuera dauka

Ekaineko lehenengo zapatuan inauguratu zituzten Iturrieta parkeko pilotaleku eta rokodromo berriak. Frontoiak estali bakoia da, aurreko hormak 9 metro dauzka, ezkerrekoak 30 eta altueran 10. Eskalada-murrua eta "bulder" bat ipini dituzte pilotalekuko hormak aprobetxatuz. Rokodromoak pilotalekuaren frontisaren atzeko aldean dago: zabalera 9m eta altueran 7m

dauzka, 3D Real Rock paneletan 88m koadro, metalezko egitura, 400 oraleku eta 400 torloju, finkatze ainguralekuak... Frontoiaren ezker paretan, ostera, "bulderra" (entrenamendurako horma) paratu dute eta 3m-ko altuera dauka. Amaitzeko, plazatxo bat eta enzenatoki bat ere egin dituzte inguruotan eta horiek guztiak eraikitzeko 431.779 euro gastatu ditu Udalak. m

GAZTE ASANBLADAKOAK ALKATEAGAZ BATU DIRA

Igeltsera Gaztetxea hustu eta aste batera Sopela eta Urdulizko Gazte Asanbladako kideak Sopelako alkate Imanol Garaigaz batu ziren. "Euren proiektua aurkezteko eta aztertuko dutela" esan zien alkateak gazteei, eta Kultur Etxe berriaren eta gainontzekoen proiektuek gazteenako lokalak aurreikusten dituztela. Gazteek, ostera, lokal horiek autogestionatuak izatea gura dutela azaldu zioten "garbiketa, ordutegia... negoziagarria dela" baina kudeaketak gazteen esku egon behar duela, "hori negoziatzerik ez dagoela". Halere, "instituzio eta politikariengan esperantzarik" ez badaukate ere, "bide hori agortu arte" ahaleginduko direla adierazi dute gazteek.

LAIKAK Taberna

San Pedro jai zoriontsuak sopeloztar guztioi!!!

Bentatxu, 2
48600 Sopela

foto xabier argazkiak

- ezkontza erreportajeak
- estudio eta argazki industrialak
- kopiak ordu betean: negatiboak, diapositiboak, CDak, disqueteak, txartelak....

T&F: 94 676 03 09
E-mail: saitua@terra.es
Doctor Landa, z/b SOPELA

www.fotoxabier.com

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

JATETXE BEGETARIANOA

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertusa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

GAZTE EUSKALTEGIA ANTOLATU DUTE UZTAILEKO GOIZETARAKO

Urtero legez Gazte Euskaltegiak bere egongo ditu 6-12 urte bitarteko ume euskaldunen uztaileko goizak. Ingurugiroa, kontsumoa, tolerantzia eta errespetua, aisialdirako hezkuntza lako gaiak jorratuko dituzte gaztetxoek uztailearen 5etik 22ra bitartean (11:00-13:00) eta horrez gainera irteerak eta ingelesa lantzeko jarduerak ere izango dituzte. Gazte Euskaltegia Berangoetako kultur etxean lekutuko da eta 30 euroko prezioa dauka.

Informazio gehiago: 94 668 21 43

KULTUR JARDUNALDIEN AZKEN TXANPA

Bi hilabetez Kultur Jardunaldiak haimaika ekitaldik bete ditu Berangoko kaleak, eta dagoeneko gutxi geratzen da amaierarako. Horra azkenengo jarduerak: V. Txakolin Eguna (Sabino Arana kalea, ekainak 19, goizean zehar), San Juan eguna (haur parkea eskolan, txokolatada, sua... Lantzarte auzoan, hilak 23), Musika Eskolaren entzunaldia (Kultur Etxea, hilak 24, 18:00) eta amaizeko Balet ikuskizuna (Berangoko Adagio taldea, Getxo Antzokia, 19:00). Horrela, kirola, antzerkia, musika, dantza, gastronomia... arloak batu dituzten Kultur Jardunaldiak datorren urtera arte azken hatsa emango dute.

UDAL MUSIKA ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK IRAILERA ARTE

Datorren ikasturtean musika-hizkuntza, piano edota solfeo eskolak hartu gura dituenak zabalik dauka Berangoko Udal Musika Eskolan izena emateko epea. Musika-hizkuntzako matrikulak hileko 22 euro balio du, piano eskolak hileko 18,50 euro eta aurten nagusientzako eskainiko den solfeo ikastaroak hileko 22 euro. Izena emateko tarte irailaren 2ra arte egongo da zabalik eta udal bulegoetan egin beharko da.

Errenazimenduko merkatua

egingo da Moreaga parkean hilaren 25ean eta 26an



Malabareen ikuskizuna ere egongo da azokan

Ekaineko azken asteburuak Errenazimendura garraiatuko ditu Berangoko Moreaga parkera bertaratzen direnak. Berangoko Udalak antolatutako Errenazimendu merkatua-Urrezko mendea ikuskizunak garaiko giroa islatuko du bi egunetan zehar (zapatuan 12:00-14:30 eta 17:30-22:30, eta domekan 11:30-14:30 eta 17:30-22:00).


Merkatuko lehenengo eguneko goizean Comediantes de la Legua taldearen kalejira egongo da, malabareen ikuskizuna, garaiko beharren lantegiak (larrua, zeramika, Raku, inprenta...), Errenazimenduko jolasak (pentonino, bolo-jokua, tangram...), txotxongilo antzerkia, falconeria erakustaldia, etab. Arratsaldean, os-

tera, arku-jaurtiketan parte hartu ahal izango da, *La Turronesca* umorezko emanaldiagaz gozatu, lantegietan ikasi... eta *Leonardo Da Vinciren mamua* eta *Arimen prozesioa* antzerki lanak egongo dira ikusgai.

Hurrengo egunean, kolorez betetako kalejira, lantegiak, malabareak, txotxongiloak, falconeria erakustaldia, etab. prestatu dituzte goiz parterako. Osterantzean, arrats partean aipatzekoak dira: *Las increíbles desventuras de D. Quijote* antzerkia, zangoluzee eta malabaristen su-ikuskizuna, Los Guerreros de la Luz taldeagaz kalejira eta *Los Titanes de la Luz* antzezlan. Errenazimendura bidaiatzeko prest al zaude? Badakizu nora jo. m

Euskara Zerbitzua > Uribe Kostako Mankomunitatea

“EBPNak onartzea oso garrantzitsua izan da, bereziki euskararentzako diru partida ekarri dute eta”



Euskara Zerbitzuko teknikariak: Garikoitz Etxebarria, Edorta Espana eta Jose Elortegi

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 1997tik dauka Euskara Zerbitzua. Iaz onartu zuten Mankomunitateko udalek (Urduliz, Barrika, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Berango) bakoitzarentzako Euskara Biziberritzako Plan Nagusia (EBPN) eta Mankomunitateak ere onartu zuen berea. Euskara Zerbitzuan 3 teknikaririk dihardute, bertako arduradun Edorta Espanak azaldu duenez: “EBPNak onartzea oso garrantzitsua izan da guretzat; lehen ez zegoen euskararentzat partida berezirik, udalek Mankomunitateari egiten zioten ekarpen orokorra baino ez zegoen; orain, berriz, udal bakoitzak badauka bere euskara aurrekontua”. Horri esker jardura gehiago antola ditzaketela aitortu du Espanak. “EBPNen barruan 4 urtetan zehar egin nahi ditugun ekintza ereduak zehaztu dira, guk ekintzak planteatzen ditugu eta alkate edo zinegotziek baimena ematen digutenean martxan jartzen dira”. Asko dira udari begira antolatuko dituzten ekitaldiak: Hondartzako Ludotekak uztailean, Euskaraz olge-

tan ekitaldiak, udaleku irekiak (Plentzia eta Lemoiz)... Ekintzak udalerriri denetan egongo dira eta egitarauaren berri etxean jasoko dute herritarrek. Horrez gain, hiztegi txiki bat ere kaleratuko dute: “euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa, portugesa, galegoa, arabiera eta txinera batzen dituen 200 berbako hiztegi txikia da; etorkinei begira eginda geneukan, baina eskualdean turismoak daukan pisua ikusita, horregatik ere argitaratu dugu”, diosku Espanak.

Proiektuak

Osterantzean, beste proiektu batzuk ere badauzka Euskara Zerbitzuak: Euskaraz blai kanpaina, ume elebidunen gurasoentzako gida-liburua, umeentzako irakurketa agenda (irakurzaletasuna sustatzeko), ipuin lehiaketa, gurasoek euskara ikasteko ikastaro bereziak eskaintzen jarraitu... Bestalde, gazteentzako ekintza zehatzak prestatu badituzte ere, Espanak zera onartu du: “hor oraindik hutsune handia daukagu, eta noizbait gogor heldu beharko diogu horri”. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15



krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserrria@yahoo.com

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

UMEENTZAKO JARDUERAK EUSKARAZ UDA PARTEAN

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak hainbat programa prestatu ditu uda honetarako. Horietako bat Euskaraz Olgetan egitasmoa da eta eskolatik kanpo ere euskaraz jolasteko aukera eskainiko die 4-10 urte bitarteko umeei. Mankomunitateko udalerrri bakoitzean astean behin egingo dira: Sopelanan, ekaineko eta iraileko asteleheneretan; Lemoizen, uztailako eta iraileko martitzenetan; Urdulizen, ekaineko eta iraileko eguaztenetan; Gorlizan, ekaineko eta iraileko egueneretan; Barrikan, ekainak 17 eta 18, uztailak 1, eta irailean barikuetan; eta Plentzian, egitekotan, irailean. Bestalde, aurtan ere udaleku irekiak antolatuko dituzte. 6 eta 12 urte bitarteko gazteentzako udalekuok uztailaren 5etik 15era Plentziako eskolan egingo dira (90 euro). Eta aurtan lehenengo, 3-5 urte bitarteko haur lemoiztarrentzako udalekuak ere antolatuko dituzte Lemoizko eskolan uztailaren 5etik 29ra (10:30etatik 13:30etara, 30 euro), eta harrera ona badaukate datorren urtean beste herrietara ere zabalduko ei dituzte.

IBERREKO JAIALDIA GORLIZEN HILAREN 29AN

Hilaren 29an, eguaztena, Iberreko jaialdia antolatuko dute gorliztarrek. Hitzordua San Pedro plazan ipini dute 19:30ak aldera eta hurbilduko direnek dantzaldiagaz, sardina janagaz, mariachiakaz eta beste hamaika ikuskizun eta ekitaldigaz hartu ahal izango dute gozatua.

BARRIKA JAIETAN

San Juan suagaz batera barrikarrak festetan



Suak garbitzen ei ditu ausarten arimak

Hilaren 18an hasiko dira Barrikako San Juan jaiak. Tenis txapelketa, emakumezko zein gizonezkoen mailan, egun horretan hasiko da eta hilaren 26ean jokatuko dira finalak. San Juan bezperako ospakizuna 18:00-etan iragarriko dute txistulariek eta 20:00-etan Gaitzerdi teatro taldeak su-ikusizuna eskainiko du udaltxeko plazan. Txokolate gozoa dastatu ostean isiotuko dute San Juan sua santuari zera eskatuz: *“lapurrek eta sorgi- nek erre, eta artoa eta garia gorde”*, antzinako

kantak dioen legez. San Juan egunean meza 12:00etan izango da, herri bazkaria 14:00etan, gero Galea taldeagaz dantzaldia, eta gauerako Joselu Anaiakaz erromeria. Hilaren 25ean, goizean zein arratsaldean jumping egiteko aukera egongo da eta sokatiraren ostean Poco-Pico taldearen umeentzako ikuskizuna. Amaitzeko, jaien azken egunean ohiko baserritar eta artisauren azoka eta Sukalki txapelketa galduko duen barrikarrik ez da jai. Eta festak guztiz erretzeko Julio Sanchez y los Pamplo-nicas taldearen kontzertua izango da egitarauaren azken ekitaldia. m

Ekitaldi batzuk

- **Txrrindularitza lasterketa.** Kadeteak. Ekainak 18, 16:00.
- **XVII Margo Lehiaketa.** Ekainak 19, 09:30-17:30.
- **Txu-txu treneta eta umeentzako parkea.** Ekainak 24, 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.
- **Sagardo festa eta sardina jana.** Ekainak 25, 19:00.
- **V. Nekazal eta artisautza azoka.** Ekainak 26, 09:00-14:00.
- **XXIX Sukalki txapelketa.** Ekainak 26, 12:00-13:30.
- **Egitarau osoa: www.barrika.net.**

Ekai. 19 - Uzt. 3

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Antzezaleak elkarteko ikasleen lanak.** Algortako kultur etxea. Ekainak 20-uztailak 1.

► **Uribe Kosta elkarteko kideen lanak.** Adimen urritasun duten pertsonen aldeko elkarte. Erromoko kultur etxea. Ekainak 20-24.

PLENTZIA

► **Sendabelar eta Jostura lantegien lanak.** Erakusketa gela. Ekainak 20-30.

GORLIZ

► **Belatik Lurrunera.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Ekainak 21-30.

SOPELANA

► **Sopelanoako argazkiak.** Erakusketa gela. Ekainak 20-abuztuak 31.

► **Zirri-Marra elkartearen margoak.** Udaletxe alboan. Uztailak 2.

LEIOA

► **EHU Erasmus.** 18 artisten lanak. Kultur Leioako Erakusketa Aretoa. Ekainaren 30era arte.

► **Ibaialde-Azterkosta.** Elexalde Errota. Ekainaren 23ra arte.

URDULIZ

► **Andra Mari Jaiak 2005.** Kartelak. Kultur Etxea. Ekainak 14-30.



Antzezlaren kartela

► Antzerkia

Cocidito Madrileño antzezlana Sopelanan

Radio Euskadiko *Mas que palabras* irratsaioa atal bat da *Cocidito Madrileño*. Saioa zuzentzen duen Javier Vizcaino kazetariak izen bereko liburua plazaratu zuen eta horren ostean heldu da antzerki lana Galder Perez eta Eloi Beatoen ekimenez. Madril aldeko irratietan *tertulianoek* euskaldunen gainean dauzkaten “iritziak” edo esandakoen inguruan dihardute aktoreek: Galder Perez, Ramon Castro, Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia eta Josean de Miguel. *Azul-colorao* zuzeneko irratsaioa taularitzen du lanak. Dagoeneko salgai daude sarrerak (Teleka eta Hall-Kulturala, 15 euro).

• **Non:** Urko kiroldegia, Sopelana • **Noiz:** uztailak 2 • **Ordua:** 22:00

► **Austin Powers. Miembro de oro.** Gazteentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 25, zapatua. 18:00.

plaza. Ekainak 24, barikua. 20:30.

ZINEMA

SOPELANA

► **Los Increibles.** Eleizalde plaza. Ekainak 29, eguaztena. 22:00.

► **El Espantatiburones.** Eleizalde plaza. Ekainak 30, eguena. 22:00.

PLENTZIA

► **Roma.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Ekainak 24, barikua. 22:00.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Umirezko bakarriketa.** Leo Harlem, Sinacio eta Juan Luis Hurtado. Aldapa Auditorioa. Ekainak 25, zapatua. 00:00.

► **Kuko, Truko eta Bolenwaidar oporretan.** Pailazoak. Euskal Etxeen

BARRIKA

► **Disco Movida.** Poco-Pico taldea. Umeentzako ikuskizuna. Udaletxeko plaza. Ekainak 25, zapatua. 17:30.

SOPELANA

► **8 Mujeres.** Itzartu elkarte. Kultur Etxea. Ekainak 25, zapatua. 19:30.

► **Zirko Iluna.** Hortzmuga taldea. Umeentzako ikuskizuna. Udaletxeko plaza. Ekainak 28, martitzena. 19:30.

► **Bake eta umirezko autobusa.**

Macrea irlandar umoristak. Udaletxeko plaza. Ekainak 28, martitzena. 21:15.

► **El Pisito.** Trapu Zaharra konpainia. Udaletxeko plaza. Uztailak 3, domeka. 20:00.

► **Les diables noirs.** Deabru Beltzak taldea. Uztailak 3, domeka. 22:00.

MUSIKA

LEIOA

► **The Midnight Travellers eta Coti.** Joxe Miguel Barandiaran Bekoa institutua. Ekainak 18, zapatua. 22:00.

► **Tapia eta Leturia.** Txosna guinea. Ekainak 23, eguena. 23:00.

► **Urgabe.** Ikaa Barri plaza. Ekainak 23, eguena. 00:00.

► **Los 3 Sudamericanos.** Aldapa Auditorioa. Ekainak 23, eguena. 00:00.

► **Karidadeko Benta.** San Juan jaiak. Txosna guinea. Ekainak 26, domeka. 20:00

SOPELANA

► **Sei Urte eta Triki take.** Udaletxeko plazan. Uztailak 1, barikua. 00:00.

► **Los cinco Bilbainos.** Udaletxeko plazan. Uztailak 3, domeka. 12:30.

BARRIKA

► **Joselu Anaiak.** Udaletxe plaza. Ekainak 24, barikua. 23:00.

BESTEAK

BERANGO

► **Errenazimenduko merkaturia.** Garaiko ikuskizunak, lanbideak, lantegiak, antzerki lanak... Moreaga parkea. Ekainak 25 eta 26. 11:30-14:30 eta 17:30-22:30.

GORLIZ

► **Iberreko jaialdia.** Dantzaldia, sardina jana, maritxiak... San Pedro plaza. Ekainak 29, eguaztena. 19:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



20 ANIVERSARIO
25 ANIVERSARIO



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Kopako finala

Denboraldian zehar fin ibili ez badira ere, ligako azken txanpan bikain jokatu dute Getxo Rugby taldekoek; lehenengo mailari eustea lortu dute, baita Errege Kopako finala jokatu ere. Baina azken partidu honetan El Salvador taldea nagusi izan zen eta getxoztarrek bigarren sariarekin konformatu behar izan zuten. Taldearen 200 jarraitzailetik gora joan zen Zaragozara maiatzaren 29an jokatu zen finala ikustera.

Argazkiak: **Jose Mari Martinez "Bubu"**



Ekainagaz batera goi mailako txirringularitza ailegatu zitzaigun Uribe Kostara. Euskal Bizikletako lehenengo etapa Sopelanan amaitu zen, eta horrek hankaz gora ipini zuen herria pare bat egunez. "Erruaren" zati handi bat telebistarena da. Txirringulazko lasterketak telebistaz emoten diren saiorik konplexuenetakoak dira, eta hori igarri egin zen Sopelanan. Kamioitzarrak, garabiak, furgonetak, kamerak... eta behargin ugari, auto-gidarien hase-rea eta ostalarien poza sortzen. Guk, bide batez, telebista mundua hobeto ezagutzeko erabili gura izan dugu aukera. Zelan egiten da horrelako erretransmisio bat? Erantzuna, ondorengo lerroetan.

Irudi erditzaiileak

Telebistako sukaldean bisitan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Zenbat agintzen du telebistak?

Denon ahotan dabil telebistaren beharrek gero eta gehiago baldintzatzen dituztela kirol-jarduerak. Ez ei da hainbesterako, gurean behintzat. "Nahi genuke askoz gehiago agindu ahal izatea", uste du Fernando Lopetegik. ETBko errealizadoreak AEBetako adibidea dakar: "Han telebistak erabakitzen du etenaldiak noiz egin. Morroi bat daukate zelaian, eta iragarkiak emateko ordua iritsitakoan, partidua eteteko agintzen du. Ez diot hemen hala izan behar duenik, baina bai gehiago agindu behar genukeela. Kritikak geuk jasotzen ditugu eta. Hau gaizki ikusi dela, beste hori ez dela ikusi...". Laugarren boterea ez da hain boteretsua, itxuraz.



Ekainaren 1ean, Euskal Bizikletako lehenengo etapa Sopelanan amaitu zen. Lasterketa heldu, ordea, bezperan heldu zen. Goiz osoan zehar, ETBko beharginak erretransmisiorako behar zuten guztia antolatzen ibili ziren, eta hantxe utzi zuten biharamunerako prest. Egun oso batez, pare bat kamioitzarrek, garabi altu batek eta hainbat furgonetak eurenganatu zuten erdigunea. Hainbat kaletan zirkulazioa eten behar izan zuten, eta autoa uzteko lekua berez izaten dena baino murriztagoa izan zen.

«Sopelanako etapa emoteko, ETBko 65 behargin ibili ziren; ez ei da lar»

Halako gertakari batek eguneroko bizimodua aldatzen du, eta seguruenik haserrealdi bat baino gehiago sortu. Poztasunen bat ere bai, ordainetan. ETBk 65 langile inguru behar ditu txirringularitza lasterketa baten jarraipena egiteko; denak ez ziren Sopelanan ibili, baina bai gehienak, eta nonon jan behar zuten. Ostalariak pozik, beraz.

Gainera, ospe kontuak ere badagoz. Euskal Bizikletaren aitzakiagaz, Sopelanaren izenak zabalkunde handia lortu du; publizitate arruntaz eginez gero, oso garestia izango litzateke, Fernando Lopetegik

dioskunez. Bera da ETBko arlo artistikoko koordinatzailea kirol-emonaldietarako. Definizio potolo hori berba bakarrean laburbiltzeko, errealizadorea dela esango dugu. Erretransmisioa hasten den momentutik aginduak emoten dituena, azken batean. "Neuk daukat jendeak telebistaz ikusten duenaren ardura", dio.

Fernando Lopetegiren gotorlekua 17 metroko luzera daukan trailerra da. Barruan hainbat atal dago. Alde batetik, gune teknikoa, irudiaren kalitatea behar bezalakoa izateaz arduratzen dena; "kamera

guztiak kolore berbera eman dezatela, eta halako kontuak". Beste leku batean, audioa, soinuagaz antzeko zeozer egiten duena. Eta erdian, errealizazio-gunea, unitate mugigarriaren benetako bihotza.

Gertatuko denari aurre hartu

Errealizazio-gunean, Fernando Lopetegik 40ren bat monitore dauzka aurrean. Horietan ikus dezake kamera bakoitzak bidaltzen duen seinalea, eta gure etxeetako telebistetan ikus daitekeena ere bai, besteak beste. Lopetegiren erantzukizun nagusia momentu bakoitzean zer irudi ikusi behar



Kameren kontrol gela; kamera txirringulariak noiz helduko zain; eta txirringulariak Sopelanan helmugaratzen



den erabakitzea da. Horretarako, noski, txirringularitza jakin behar da, eta gainera sen bat eduki behar da jazoko denari aurre hartzeko, jazo baino lehenago kamera ego-

xumeak darabiltza arlo horretan. TVEk, konparazio baterako, 200 laguneko lantaldia eroaten du. "Horiek lauzpabost moto daukate, eta guk bi. Horrek esan gura du

«Errealizazio-guneko 40 monitoreak dira unitate mugigarriaren bihotza»

kia aukeratzeko. Sen hori, zer esanik ez, esperientziagaz garatzen da hein handi batean.

Beste telebistak baino apalago

Esan dugunez, 65 lagun inguru ibili ziren Sopelanako etapa-amaiera emoteko. Moto eta helikoptero gidariak, esatariak, kamerak, teknikariak, Serantesen furgonetagaz egon zirenak... ETBk, dena den, kopuru

askotan moto bat falta zaigula behar dugun lekuan. Lasterketako epaieleek, gainera, ez digute beti uzten kamera guk gura genukeen lekuan ipintzen. Beste batzutan, ihesaldi luzeak direnean-eta, moto bietako seinaleak aldi berean erakustea gustatuko litzaziguke, baina ezin dugu, Euskal Herriko orografiak ez digulako uzten".

Lasterketa bai, baina oztopo lasterketa esan beharko. m

Seinalearen bidaia bihurtuetsua


Kamerak hartzen dituenetik gure pantailetara ailegatzen diren arte, telebistako irudiek estazio asko daukan bidaia egiten dute. Hortik datoz, hain zuzen ere, era honetako erretransmisio bat prestatzeak dauzkan zailtasunetako asko. Kamerak hartzen dituzten irudiak 1.000 metro inguruko altueran -edo gorago, mendien arabera- dagoen helikoptero batera doaz. Helikoptero horrek, gero, mendi batera bidaltzen

«Kameretatik etxera arteko bidean, seinalea sei edo zazpi lekutatik igarotzen da»

du seinalea; Sopelanako etaparen kasuan, Serantesera. Orduko hartan, Serantesen furgoneta bat ipini zuen ETBK, eta hark Sopelanara bidaltzen zituen jasotako irudiak. Errealizazio-gunera, hain zuzen. Han, nahasketak eta gainerako egin beharrak amaituta, seinalea berriro bidaltzen zen Serantesera, eta handik Oizera eta ikusleen etxeetara. Hori guztia segundo batean.

Kamioiak eta abar ezin dira edonon paratu, beraz. "Bai helikopteroak, bai nik Serantes ikusi behar dugu", dio Fernando Lopetegik. Baina herri batean, ez da beti erraza izaten ikusi gura den mendia ikustea; etxeak eta bestelako oztopoak gairitu behar dira. Eta horretarako zen, hain justu, Sopelanan ipini zuten garabi handia.





Funanbulista Areetan

Juan Luis Markaida

Oinezkoak zein auto-gidariok semaforoen argien koloreek igortzen dizkiguten aginduak ezinbestean obeditu behar ditugu. Baina susmatzen dugu trafikoa bideragarri egiteko sistema honen asmatzaileek funanbulistak, ekilibristak eta, oro har, oinak lurra zapaldu barik bizi diren lagunak ahaztu zituztela.

Era horregatik, Juan Luis Markaidaren argazki honek ederro erakusten duen legez, gure inbidian lagun hegalari hauek libreki mugitzen dira.

[berbetan]

Pablo Martin Asuakoa da, baina Sopelanan bizi da gaur egun. Hamabi urte dira Amnesty Internationaleko (AI) kidea dela; urte eta erdi daroa, gainera, Bilboko taldeko koordinatzaile lanak egiten, eta erakundearen bozeroalea ere bada Hego Euskal Herri osorako. Elkarrizketa hasi aurretik, ohar bat: berak ez du protagonismorik gura, hori delako Alren ohitura, taldeari garrantzia emotea eta ez kide jakin bati. Ondo da. Errespetatu egingo dugu Martinen eskaera hori, eta ondorioz sarrera-testu hau ohi baino askoz laburragoa suertatuko da. Egin dezagun giza eskubideez berba, beste barik.

Pablo Martin

Giza eskubideez berbetan

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Noiz eta zergatik sortu zen Amnesty International (AI)?

—1961ean, Portugalen Salazar jenelaren diktadura zenean, ikasle talde bat atxilotu zuten taberna batean askatasunaren alde topa egitearren. Barria Londresera ailegatu zen, eta han Peter Benenson izeneko abokatu batek irakurri zuen, metroan zihoala. Asaldatu egin zen, eta hasiera batean Portugaleko enbaxadara joatea bururatu zitzaion, protesta egitera. Baina hobeto pentsatu ondoren eleiza batean sartu zen, eta ideia batez urten zuen handik. Hamabi egunkaritan argitaratu zen idatzi bat osatu zuen; “Ahaztutako presoak” zeukan izena. Idatzia asko zabaldu zen, beste herrialde batzuetan ere bai, eta laster hasi ziren munduko leku askotan era hartako eskutitzak idazten. Holan jaio zen mugimendua, eta handik laburrera hainbat herrialdetan zabaldua zegoen. Gaur egun milioi bi inguru bazkide daukagu, 140 herrialde baino gehiagotan.

—Eta noiz agertu zen Amnesty International izena?

—Ezin dizut zehazki esan. Hasieran beste izen bat zeukan -ez naiz akordatzen zein eta kontzientzia presoez arduratzen zen; indarkeria erabili barik euren ideien alde jarduteagatik gartzeleratzen zituztenez, hain zuzen. Geroago, heriotza-zigorra, tortura... salatzen hasi ziren, eta azkenean Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak

“Mundua txarto dagoen? Gure txostenak emoten duen irudia ez da oso atsegina”

daukazan 30 artikulua hartu dira oinarritzat. Sinesmen, ideologia eta erlijioen gainetik. Eta AI, hain zuzen, guztiz independentea da horiengandik. Are gehiago, gure diru-iturri bakarra bazkideek emoten dutena da. Guk pertsonen eskubideak defendatzen ditugu, ez euren iritziak.

—Zuen helburua, orduan holan laburbildu daiteke: giza eskubide guztiengana-


ko errespetua?

—Bai, hortxe dagoelako jasota pertsonen oinarritzko nahiak. Eta ez bakarrik torturatua edo exekutatua ez izateko eskubidea; eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ere bai.

—Oso txarto dago mundua?

—Oraindik orain argitaratu dugu urteroko txostena, eta hark emoten duen irudia, egia esateko, ez da oso atsegina. Uste dugu

arlo batzuetan atzera egin dugula, aurrera beharrean. Irailaren 11ko erasoan ondorioz, aurrerantzean mundu seguruago batean biziko ginela agindu ziguten, baina kontua da terrorismoaren aurkako gerra esaten dioten horregaz segurtasun eza handitu dela. Gerra horren aitzakiagaz, batere onuragarriak ez diren politikak sustatzen dabilta, saihestu gura ei dutena



[PabloMartin]

eraginez hain zuzen. AEBak, batez ere.

—Zergatik zapaltzen dira hain sarritan giza eskubideak?

—Guk ez dugu aztertzen zergatik edo zertarako. Gobernu bat edo talde bat helburu batzuk betetzen ahalegintzen denean, eta horretarako giza eskubideak zapaltzen dituenan, argi dago garrantzi handiagoa emoten dietela atarramendu ekonomiko edota politikoei, pertsonen duintasunari eta eskubideei baino.

“Globalizazio ekonomikoak erantzun bat sortu du: giza eskubideen globalizazioa”

—Eta AI bezalako mugimenduak alperrik hasitako borroka dira? Badago zeozer lortzerik?

—Bai. Ez dira inondik inora alperrik hasitakoak. Guk uste dugu gure salaketan %30 eraginkorrak direla. Adibide bat da Nigeriak atzera bota duela ezkontzatik kanpo harremanak edukitako hainbat andrearen kontrako heriotza-zigorra. Horretarako egindako kanpainen bitartez, 650.000 sinadura batu dira Espainiako estatuan bakarrik. Horrek hausnarketa egitera behartu du hango gobernuak, eta azkenik, pertsona horien bizia salbatu da. AEBetan, esaterako, orain gitxi arte adinez beherakoak eta gaixotasun mentalak zeuzkatzenak exekutatzeko ibili dira. Besteak beste Alk egindako lanari esker -izan ere, heriotza-

“Amnesty Internationalek egindako salaketan %30 inguru eraginkorrak dira”

zigorraren aurkako koalizioa osatu da. AEBetako Auzitegi Gorenak bertan behera utzi ditu exekuzioak. Beraz, gizarte zibilaren bultzada benetan eraginkorra izan daiteke. Eta mundua txarto dagoela dinogun arren, aurrerapausuak egon dira. Esate baterako, heriotza-zigorra kendu duten herrialde kopurua askoz handiagoa da dagoeneko atxikitzen dutenena baino.

—Zuen urteroko txostena arreta handiz hartzen da, eta zabalkunde handia edukitzen du komunikabideetan. Ospe handia lortu duela esango nuke. Horretan gelditzen da, edo zeozer gehiagorako balio du?

—Helburua, hain zuzen, agintarienganaino ailegatzea da. Hau da, erantzukizun sozial eta politikoak dauzkatenenganaino. Eduki dezaten, eta kontuan eduki dezaten, gobernuek batez ere. Gobernuak, izan ere, oso adi egoten dira, txostena noiz

kaleratuko zain. AI dagoen herrialdeetan, noski, leku batzutan ez gagoz eta baldintzak hain dira txarrak, behatzaile modura doazenen bizia ere arriskuan dagoela.

—Alde batetik sakaletak egiten dituzue, baina bestetik informazioa batzen duzue. Zaila izaten da, ezkutatzen dizute?

—Batuetan oztupoak egoten dira. Ez digute lekuren batera sartzen uzten, edo ez digute lekukoakaz berba egiten uzten, edo ez digute agiriren bat emoten... Baina lanak aurrera segitzen du, eta ikertzaileek ahal duten heinean batzen dute informazioa.

—Presio handia edukitzen duzue?

—Nik dakidanez, momentu honetan AI ez dabil inor presiorik jasaten. Baina egia da kide batzuek zenbait herrialdeetatik ospa egin behar izan dutela. Ezagun da

Kolonbiatik joan behar izan direla, hiltzeko arrisku handia zeukatelako. Sierra Leonako egoera oso txarra da: giza eskubideen defendatzaile batek ozta-ozta lortu zuen handik ihes egitea, torturatua izan ostean, eta Bilbora etorri zen. Arazo handiak zeuzkan bere lana burutzeko. Hara, munduan tiraniak dagoz, eta errepresioa. Ihes egin behar izan dutenentzat badago

harrera-programa bat, eta eurak ere ez dira geldi egoten, euren herrialdeetan jazotzen dena zabaltzen baizik.

—Mundu mailan, emakumeen inguruko kanpainan zabilzate iaiztik...

—Hala da. Gure ustez, eskandalua da andrazkoek munduko jendarteetan daukaten lekua. Euren bikotekideek hil egiten dituzte, hainbat herrialdeetan ez dute ezer balio, Afrikako leku batzuetan sexu-mutilazioak egiten zaizkie... Etxeko indarkeriari dagokionez, gizonak andra jotzen zuten “zeozer egingo zuen”, edo “euren kontuak dira” esaten zen lehen. Gaur egun, lortu egin da emakumeen giza eskubideen urraketatat jasota egotea hori, eta Nazio Batuen Erakundeak (NBE) berak kaleratutako lan-ildo zerrenda batean agertzea. Gomendio batzuk egin dira, eta espero da gobernuek aintzat hartuko dituztela. Baina horretarako jendarteak bultzatu behar du. Ildo horretan, laster mozioak aurkeztuko dira Bizkaiko udal-txe guztietan Espainiako gobernuari eska diezaioten NBEren gomendioei jaramon egiteko. Onartu egin behar da gobernuak, azken urteotan, ahalegin handia egin duela arlo honetan, integrala deritzon lege barri honegaz, baina babesa ez da erabatekoa. Erreabilitazioa falta da, eta laguntza psikologikoa, eta laguntza juridikoa... Babesbakoentzat, batez ere.

—Gero eta batasun handiagoa igartzen da GKEengan. Arazo desberdinen ikuspegi orokorragoa daukazuela emoten du: giza eskubideak, osasuna, ekologia... Dena ei dago denagaz lotuta.

—1961tik hona, etengabe sortu dira mugimenduak, eta gai askoren inguruan batasuna emon da. Talde batzuk elkartu eta bakarra sortu dute, Intermon-Oxfam, esate baterako. Eta gai askoren inguruko momentuko elkartasunak ere izan dira. Globalizazio ekonomikoak erantzun bat sortzen dabil: giza eskubideen globalizazioa. m

MUNDU BAT HAMAIA LEKU



18 bidaiak

txina
karibe
andaluzia
mallorca
kantabria

Ekainaren 19tik aurrera



Kupoi guztiak bilduz gero, autorako eguzkitakoa jasoko duzu opari.



berria

Laguntzailea:

 EROSKI/bidaiak
merezi duzu

族
遊
中
國

Euskaldunok behar dugun

berria




Frankismo garaiko “bajadak”


Udaren atarian gaude eta laster herrietako jaiak bata bestearen atzean etengabe ospatzen hasiko gara. Sarritan egiten dugun legez, atzera begiratzea otu zitzagun eta aspaldiko jaien argazkien bila hasi ginen. Hauexek topatu genituen. 1964ko San Inazio jaietakoak dituzue, Ereaga hondartzaren inguruan ateratakoak guztiak. Ohitura “Desfile de carrozas” deitzen zena egitea zen, gaur egungo koadrilen bajaden aurrekariak izan daitezkeenak. Jaietan Erregina eta Ohorezko Damak ere aukeratzen ziren. Artean frankismoa indarrean zegoen eta argazkiok ederto erakusten duten moduan jaien eredia oso bestelakoa zen. Irudien kalitatea ez da guk nahi genukeena, baina dokumentuak merezi zuelakoan argitara ematea erabaki dugu.

Argazkiak: **Getxoko Liburutegia eta Udal Artxiboa**









zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema kritika zientifikoa al da?

Zutabetxo honetan behin baino gehiagotan, ikuspuntu batetik edo bestetik, orain jorratuko dugun gaia ikutua izan da. Eta izenburuak adierazten duenez, zalantzak baino gehiago sortzen zaizkigu zinema kritika zientifikoa den edo osagai subjektibo handia duen esan behar dugunean. Jakina, zientziaren esparruan iritzi desberdinak daude baita ikuspuntuak ere. Baina gure buruari galde diezaiokigu ia nola den posible film berdin baten aurrean kritikoek hain iritzi desberdinak izatea. Edonork ulertuko luke pertsona arrunt bati film bat gustatu zaiola eta beste bati, ordea, batere ez. Azalpena erraza da, kasu honetan bakoitzak bere nortasunaz eta gustuz egiten du filmaren azterketa, ikuspuntu zientifikoa albo batean utzirik. Baina kritiko profesionalak ikuspuntu objektiboak erabili arren desberdintasun nabarmenak sortzen dituzte haien artean. Ahalik eta argien esaten duguna adierazteko ikus dezagun *Dirigido* zinema aldizkarian, harira dator esatea zinema aldizkariaren artean onenatariko bat dela, adibide pare bat: Michael Winterbottom egindako *Código 46* filma, E. Orts kritikoaentzat "oso ona da". Berriz, A.J. Navarrorentzat hobe izango litzateke etxean gelditzea. Zinema kritiko hau kritikari buruzko master espezialitatua ematen ari da. Norbaitek honetaz zerbaite gehiago jakin nahi baldin badu www.observatoriodocine.com begira dezala. Zertan oinarritzen da desberdintasun handi hau? Klabea Drac Magic zinema erakundearen eskutik etortzen zaigu. Filmek gure sentimendu esparruari dei zuzena egiten diote, beraz lan azterketa egiten denean arrazoia eta logika sentimenduez uztauririk geldituko dira. 4

Tropofilms sareko filmak

Edu Glez buru daukan ekoizpen-etxe independientea lan berria prestatzen dabil

Orain dela 8 urte inguru sortu zuen Edu Glezek, Tropofilms ekoizpen-etxe independientea. VHSren sasoiaren eta bere lehen film laburrak grabatzen hasi zen lagunak protagonistak zirela. Alabaina, hastapenetan apaletan ahazturik eta ikusleen begietatik urrun gelditzen ziren film labur haiek sarean aurkitu dute edonoren eskura egoteko erakuslehorik zabalena. Geroztik, izen propioa hartzen doa interneteko zinemaren sarean Tropofilms. Deigarriena, Glezek esan duen legez, "10 urte igaro direnean Tropofilms bizi-bizirik jarraitzen duela da; lehenengo filma egiten duzunean jende asko daukazu ondoan, baina gero jendeak bere bidea hartzen du, 20 urte gero jendea musu-truk lan egiteko prest dago, baina 30 urte gero gatazkoa da. Eta guk erronkari eutsi diogu. Interesgarriena da Tropofilms agerian uzten duela ia sosik gabe

«Tropofilms agerian uzten du ia diru barik film laburrak egin daitezkeela»

film laburrak egin daitezkeela eta gainera ikusle-enganara belarazi daitezkeela. Beraz, sareak abantaila handiak eskaintzen ditu, baina desabantailak ere Glezek dioenez: "Formatoa, denbora, etab. baldintzatzen ditu eta horrek azken finean estiloan ere eragina dauka; azkarrago egin behar,

Argazkian, Edu Glez. www.tropofilms.com

offeko abotsak garrantzia hartzen du..." Edu Glezen film laburrak umorezkoak eta kritikoa dira gehienak, eta lan talde osoa bere lagunek osatzen dute. Gortzen dabilta lan berria grabatzen: "El anchoa, el terror del Pardo". 1975ean girotutako film laburra da, horretarako aurrekontua 120 euro ingurukoa da eta uztail erdialdean webgunean egongo da ikusgai. Madril aldean ere badabil lanean Glez: Zine sailean dekoratuak sortzen, Cesar Carronegatz (Zuzendaritza artisko onenari Goya saria, 2004), *Volando Voy* filmean (Miguel Albaladejo) disenatzaile grafiko. m

Ez galdu > *Mon père est ingénieur*

Film honen atzean Frantziako Marsella hirian jaiotako zuzendari oso ezaguna den Robert Guédiguian dago. Berak bere ohiko kolaboratzailearekin idatzi du gidoia eta istorioa berarekin askotan lan egiten duten aktoreekin garatu du. Bere lehenengo film luzea 1981ean zuzendu zuen. Geroztik hamar film egin ditu eta beti begirada zorrotza eta kritikoa jarri du bere lanetan. *Nire aita ingeniaria* da filma berak ekoiztutako beste hainbat film bezalaxe ere Marsellan kokaturik dago. Film honek garatzen duen istorioak fidelitasunak pertsonarekiko eta ideiarekiko duen garrantzia hitz egiten digu. Protagonista biak sendagileak dira. Emakumeak, Ariane Ascaride, medikuntza auzo batean praktikatzen du. Bere lagun sentimentalak, Jean-Pierre Darroussin, administratzaile lan egiten du. Egunerokotasunak haien arteko maitasunatik urruntzen ditu, baina zailtasun guztien gainetik haien bizitzak konpartituko dituzte.

Getxoko Jazzaldia

John Scofield, Richard Galliano, Maria Joao, Pirineos Jazz... **uztailaren 1etik 5era**



Argazkian, Richard Galliano. Sarrerak: 94 4319280 edo Villamonteko kultur etxean

Uztaila lehenengo 5 egunak jazz doinuakaz gautuko dira, eta aurten ere XXIX. Nazioarteko Jazzaldia itzal handiko musikariak bertaratuko ditu Getxora: Ohioko gitarrari jole opetsu John Scofield (hilak 2), esku-soinuaren maisu Richard Galliano frantsesa (hilak 5), Maria João abeslari portugaldarra (hilak 1), Baldo Martinez buru daukan Proyecto Miño (hilak 3)... Halaber, aipamen berezia merezi dute euskal musikariek osatutako Pirineos Jazz Orkestrak (hilak 4) eta Teresa Zabalza Quintet euskal taldeak. Emanaldiak ohiko agertokietan egingo dira: Biotz Alai plazan kontzertu nagusiak (lehenengo aipatutako musikarieren emanaldiak),

Lehiaketan parte hartzen duten taldeen ostean (21.30). Hurrenez hurren, Lehiaketako taldeak hauexek dira: David Doruzka Trio (Txekiar Errepublika), No Limit (Austria), Frank Wöste Trio (Frantzia) eta Felix Fromm Sextett (Alemania).

Hirugarren Milurteko Ataleko emanaldiak Getxo Antzokiko plazan egingo dira eta egun bakoitzeko hurrengoek jardungo dute: Foure Jazz, Listen!, Contreras & Tutusaus Qt., Teresa Zabalza Qt. eta Carme Canela eta Ester Andujar Group (denak 19:30). Gainera, ezin ahaztu Piper's Irish Pub-ean (Algora) egingo diren Jam Sessionsak. Amaizteko, sarrerak dagoeneko salgai dauzkazue. m

diskoak

Devil and dust
Bruce Springsteen
Sony



Disko hau gauzatzeko bere taldea (E Street Band) alde batera utzi du: berak jo ditu instrumentu gehienak. Eta, hala ere, Springsteen diskorik ausartena dugu. "Ugazaba"ri 12 abesti dauzkan lan lasaia eta barnekoia atera zaio; gainera, hitzek mezua dakarte. *Long time comin'* kantant Brucek "fuck" berba esaten du lehenengo aldiz disko batean. Haserretuta dagoen seinale.

Gatillazo
Gatillazo
Ohuka



Azalak bere seme biek askaltzen duten "Phoskitos" pasteltoetan dauden plastikozko pistolak erakusten ditu. Evaristo handiak talde berrizagaz egin du debuta. Ezer berririk ez puzkaren ugazabaren besapean. Evaristo ez zaigu aldatu, eta hortxe dago hain zuzen bere indarra. 212 abestien ostean (datua berea da), oraindik gai da gizartearen eta politikarieren aurka 21 sastada jaurtitzeko.

Agur > Hiru Truku



Pasa den azaro aldean plazaratu zuen Ruper Ordorikak, Bixente Martinezek eta Joseba Tapiak osatzen duten Hiru Truku taldeak *Nafarroako kantu*

zaharrak diskoa, bigarrena kaleratu zutenetik 7 urte igaro ostean. Hamar urteko ibilbidean, Bizkaiko kantu tradizionalak ikuspuntu berritzaileagaz aurkeztu dizkigute hasierako bi diskoetan (*Mendebaldeko euskal baladak*, 1994 eta *Mendebaldeko euskal kantuak*, 1997). Azkenengoan Nafarroako kantutegi zaharren eguneraketa eskaini digute. Baina bakoitzak bere bidean jarraituko duela adierazi dute orain, ostera, hiru musikarion bideak behin elkar gurutzatu ziren legez etorkizunean berriro ere aurki litezkeela azaldu dute.

Urteurrena > Xurut-ek 20 urte

Aurten bete dira 20 urte Gorlizko Xurut pizzeria-taberna eta kontzertuetarako topalekuak atek zabaldu zituenetik. Hardcore eta rock zaletuen kabia izan da Xurut azken 2 hamarkadetan eta erritmoari eusteko erritmo indartsuagoa jartzea erabaki dute. Ekaina da ospakizunetarako hitzordu, eta dagoeneko Split 77, Derrumbes, Cujo, Zodiacs eta beste zenbait taldek kontzertuak eskaini dituzte. Hala ere, oraindik ospakizunak bat egiteko aukera badago, aurreikusten diren emanaldiak: Ya te digo eta Akauzaste (hilak 17), Boggie Punks eta Santi Delgado & The Runaway Lovers (hilak 18), Zea Mays eta Cordura (hilak 24), eta Enki eta Capitan K Verne (hilak 25).

Piztu da piztia
Kuraia
Metak



Bere amaieraren gaineko zurrumuru asko entzun diren arren, Kuraia ez dago hilda. Horregatik laukoteak izenburu hau ipini dio hirugarren disko honi: hernen daudela eta haserre daudela esateko. Sarrera labur bat eta sei abesti hoge minututan dauzkan lan hau CD, binilo eta MP3 euskarrietan kaleratu dute. Piztia gureganantz dator inoiz baino freskoago, zuzenago eta garbiago soinuen aldetik.

poemakutunak

Egilea: Xabier Lizardi, 1926

Udazken

Osto igar bat aizeak
biali dit leioraño...
Galena, ala, biziak
dakar giza biotzaganaño.

Iñara talde urdiña
erbestertz baidiyoa...
Alatsu urre-amesak
lagatzen dute giza gogo.

Ez bekit biotzean,
Yauna, osto oririk yausi!...
Ez, iñara taldeok,
otoi!, neri gogotik igesi...

Iraun, udaberria,
betiko nere gogoan,
Yauna ta aberriari
eskeintzeko loreak ditzadan!



etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearen bati)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[liburuak]

Kristofen azkena euskaraz

Berdin dio Agota Kristofen azkenengo ipuin-liburua euskaratu du **Eskarne Mujikak**

Alberdania argitaletxeak Agota Kristofen *C'est égal* liburua euskaraz plazaratu du. Argitaletxeak kaleratzen duen idazle hungariarraren hirugarren liburua da eta Eskarne Mujikak euskaratu ditu hirurak. 1997an itzuli zuten euskarara Kristofen lehenengo nobela *Koaderno Handia* (*Le gran Cahier*, 1987) eta 2003an argitaratu zuten *Atzo* (*Hier*, 1995). Erbestean, Suitzan, bizi den idazleak aurten bertan kaleratu du bere azken obra den *C'est égal* ipuin-liburua eta oraintsu *Berdin dio* itzulpena aurkeztu dute Eskarne Mujikak eta Alberdaniak.

Horren albotik, argitaletzeko arduradunek azaldu dutenez, hamaika hizkuntzataraz itzulia izan diren egile honen lan gehiago euskaratzeko asmoa daukate.

«Kristofen Koaderno Handia eta Atzo liburua ere euskaratu ditu Mujikak»

Agota Kristofek (Csikvand, Hungaria, 1935) 25 kontakizun labur bildu ditu *Berdin dio* liburuan, eta Mujikak adierazi duenez, "giro arrotz batean igarotzen diran gertakizunak; baina aldi berean, modu hunkigarrian bitxiki bilduak ageri dira pertsonaiak eta egoenak". Euskaratutako ipuin bildumak 80 orrialde dauzka eta 13,50 euroan dago salgai.

liburuak



Apologia
Julian Peña
Elkar

Hiru istorioz osaturiko kontakizun honek gizartearen aurkako kritika eta parodia elkartzen ditu. Automobilgintzaren kontra egiten duen Ramon Merchan terrorista nihilista gaztea, bere ikasle astakirtenei pentsatzen irakatsi gura dien irakasle zini-ko bat... Ondarroako Agustin Zubikarai nobela laburrentzako saria irabazi du.



Agota Kristof (Hungaria, 1935)

Koaderno Handia nobelaren 10.000 ale inguru saldu dituztela adierazi dute Alberdaniako ardurarek eta *Atzo* eleberririk ere arrakasta nahikoa izan duela. *Koaderno Handia*-k bi anaia bikien ikasketak-prozesua dauka oinarrian eta umeen idazteko moduagaz dago izkiri-riatuta. Deserria, erbestea eta bakardadea dira *Atzo* lanaren gidarietako batzuk, Europako sortaldetik mendebaldera datorren gazte baten istorioa kontatzen digu Kristofek, idazlea eta erbestertua den Tobiasena. Suitzan bizi den idazle hungariarragaz antzekotasun bat baino gehiago aurkituko ditu irakurleak nobela honetan. m

www.alberdania.net



Kearen truke
Aritz Gorrotxategi
Alberdania

Inor gutxi arduratuko litzateke hirian agure baten heriotzagatik. Inor gutxi, agure horrek sekretu ilun bat gordeko ez balu. Sekretu hori argitzen saiatuko da Samuel Elizalde ikertzaile ohia. Gizon garratza eta ezkorra da Elizalde, orain dela gutxi utzi dio erretzeari, eta batere nostalgia barik begiratzen dio inguruari.

[kirola]

Euskal Seleksioaren eguna

antolatatu du ESAITek **uztailaren lehenengo domekan** Algortako Portu Zaharrean



Getxoko ESAIT osatzen duten lagunak

Getxoko ESAIT taldeak dauka aurten VII. Euskal Seleksioaren Eguna antolatzeko ardurara. Uztailaren 3an egingo da jaia eta Portu Zaharra izango da topagunea.

"Euskal Federazio Nazionalak sortu, kirolariak prest" lelopean Telletxetik irtengo den kalejirak emango dio hasiera festari (10:00) Hasieran, Herriko Agurra egingo dute Itxas Argia eta Ixtartu dantza taldeakaz eta ondoren trikitilari, txistulari eta gaiteroen doinuari jarraituz Portu Zaharrerantz joango dira. Han Getxoko kirol elkarte eta kirolarien artean euskal seleksioaren aldeko sinadura bilketaren berri emango dute. Getxon hasi dira atxikimenduak batzen ESAITekoak eta egitasmo hori Euskal Herri osora zabalduko dute gero. Ostean, dantza eta txalaparta erakustaldia egingo dira eta Esaitbiton-ean (aerobica, 11:00) parte hartzeko aukera izango dute ber-

taratuko direnek. Eguerdian Pirritx eta Porrotx pailazok edukiko dute barreak porturatzeke ardura eta 13:00ak inguruan Andoni Egaña, Sustrai Colina eta Xabi Payaren bertso-saioak hartuko du lekukoa. Eta 400 lagunentzako egingo den paella ahoratu aurretik kukainaren erronkari aurre egiteko aukera ere egingo da.

Arratsaldean: estropadak eta musika

Portu Zaharrean ezin albora utzi estropadak eta hitzordua 16:00etan ipini dute. Orduantxe eraso egingo dio Txatunga Benbe perkusio taldeak bazkalosteko lozorroari, herri kirolak eta arku-jaurtiketa erakustaldiari gogotsu ekiteko. Sardina jana prestatuko dute indarrak berreskuratzeko eta Zea Mays taldearen doinura gerria astintzeko. Amaitezko, erromeria egongo da eta egun osoan zehar txosna, puzgarriak, rokodromoa, piraguak, etab. ez dira faltako. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350^{m²}

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-

MENTZAK

Lacofris, s.l.

• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
• 3 HILABETEKO GARA-
NTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU-

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430
HIRURAK

Sarrikobaso 15

Jaime Vilallonga > musika jartzailea

“Disc jockeya ez da protagonista izan behar ezkontzan, baina parte hartu behar du”



Jaime Vilallonga orain hamar urte hasi zen ezkontzetan musika ipintzen, ia kasualitatez

Orain dela urte eta erdi inguru, UK-kooi bizilagun barria etorri zitzaigun alboko bulegora. Jaime Vilallonga getxoztar gaztea zen, Jol Music enpresako ugazaba. Euren beharra jaietan musika ipintzea da; ezkontzetan batez ere, baina bestelakoetan ere bai (hileta baten baino gehiagotan ibili dira, esaterako). Atal honetan ohikoa den seriotasunetik ihesi, ezkontza bat bezain berriktaldi alaia egin dugu beragaz.

—Emoten du ezkontzetan beti musika bera ipintzen dela...

—Jendeak gustuko dauzka abesti batzuk eta! Barriak ere erosten ditugu, jakina, baina askotan jotzen dugu iraganera. Ezkontza batean denetariko jendea dago: ezkonbarrien aitite-amamak eta gaztetxoak. Batzuek pasodoblea gura dute, besteek *reggaetona*...

—Eta denek *Paquito el chocolatero*...

—Ez beti. Ezkontzaren arabera.

—Orduan ez dira beti kanta berak...

—Ez. Bezeroak aukeratzen du menua. Guk

eskatu egiten diegu euren gustuko abesti zerrenda bat idaztea, eta hogeiren bat izen emoten badigute, nik badakit nondik nora jo behar duen ezkontza horretako musikak.

—Ez zitzaizun zeuri egokituko zeure ezkontzan musika ipintzea...

—Ez, lankideek egin zuten. Bost disc jockey eduki nituen nire ezkontzan! Bakoitzak gura zuena ipini zuen, baina ahalegindu ziren niri gustu emoten; U2 asko ipini zuten, oso gogoko daukat eta.

—Baina U2 ez da ondo ezkontzen ezkon-

tza bategaz (parkatu berba jokoa)!

—Denetik ipini behar da. Orain dela gitxi Exkixu, Barricada... ipintzen egon nintzen ezkontza batean. Momentu jakin batetik aurrera noski, adineko jendeak ospa egin eta gazteak lotu zirenean.

—Orduan lehenengo helburua zaharrak nekatzea da. Hasi behintzat, indar handiz hasten dira eta...

—Bai, gazteak barran dagozelako, edaten eta elkari esaten zenbat aldatu diren urte haue-tan. Nahikoa edan dutenean urtetan dute dantzagunera. Ordurako, agure-atsoak jesa-

«Batzuek flamenkoa eskatzen dute Springsteen ostean eta hori ezin da ipini»

rri egin dira, nekatuta, eta nik gazteentzako musika egokiagoa ipintzen dut.

—Zein da zure harremana ezkontzagaz? Jendeak zugaz berba egiten du?

—Jendeak berba asko egiten du, sarritan eskatzen dute kanta bat edo bestea. Batzuek, gainera, momentu horretan inola ere ipini ezin daitekeen zeozer eskatzen dute. Flamenkoa Bruce Springsteen ostean, berbarako. Baina beti ahalegintzen naiz jaramon egiten. Disc jockeya ez da protagonista izan behar ezkontzan -hori ezkonbarriei dago-kie-, baina parte hartze handia eduki behar du.

—Ezkontza krisialdian dago?

—Jendeak ezkontzen segitzen du, eta asko. Bizkaian 3.500 ezkontza egon ziren iaz.

—Guztiontzako merkatua dago, orduan...

—Bai ba! Guk iaz 320 inguru egin genituen. Eta gero eta gehiago eroaten dira disc jockeyak, orkestrak kaltetan.

—Merkeagoa delako?

—Antzekoa da. Disc jockeya apur bat merkeagoa da, baina ez larregi. Gitxiagoren artean banatu behar da dirua, beraz... m

Esakere > “Behea yota itxi”



Irudia: Gorka Vazquez

Behea yota dau bai, gixajo hau: ezusteko eta hasarrakuntze ederra deko! Bera pozik bizi ixen da orain arten, pentsata, “asko dakik bizitzen badakik”, baia ai ene, gure sukaldari batek sarri esaten dau lez, “egon hadi lo eta jango duk mehe”. Hori esakere bere hortxe dago, eta hori bere egi handi da. Ezin gara lotu konforme dakiguneaz, gaur eguneko bizimodun batez bere, beti dau zer ikusi eta zer ikisi, eta adi ez bagabiltzez, morroi honen modun lotuko gara konturetu baiño lehenago!

Leku askotan entzuten da esakera hau, eta esaterako Iñaki Gamindin “Urdulizeko berbak eta bizimodu” librun topako dozue.

Gure **berbakere61**

ESAKERE ZAHAR BATZUK

Goiko iruditxuk ondo erakusten dau lo lotzen danak edo ikisten ez daunek zelan akaba ahal dau, eta ataltxu honetan yarraitu egingo dogu gai horregaz, ikiste eta jakite aitetuten daudezen esakera batzun bitartez. Honek esakerok, eta askoz gehiago, Gotzón Garaten *Atsotitzak* bilduman topako dozuez:

Testua: **Xabi Bilbao**

- Agintzen daunek, jakin egin behar dau noz agindu eta noz ez.
- Urte bi berbatan ikisteko, bizitza osoa isiltzen jakiteko.
- Ama zer dan jakiteko, ama izan bier.
- Asko daki saguk, baiña gehiago katuk.
- Asto batek baiño bik gehiago dakie.
- Behiek ez daki zer balio dau buztenak, galduta ez bada.
- Burua galtzen daunek, hankak non dabilzen ez daki.
- Deabrua adintsu, horregatik jakintsu.
- Esaten dakiñek, entzuten be jakin behar dau.
- Gitxi ikasia beti jakintsu.
- Ikasten ez daunek etxen ez daki kanpon.
- Jakin nahiak kontatu nabia berekin.
- Lehelengo jakin, ta gero berba eiñ.
- Jakintsu gitxi aberats.
- Ikusi ta gero, danak jakintsu.
- Bere buru ezetute da jakite.
- Jakitek ez dau ogirik jaten.
- Berbatan ondo jakiteko, isilik egoten ikasi.
- Sasian zer dagon jakin barik, tirorik ez.
- Ez dakigu zein uretarik edango dogun.
- Ustea ez da jakitea.

Bueno ba, honelako aholkuri yaramon egin ezkeron seguru apur bet yakintsuago ixengo garala danok! Ondo ibilli!

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARRO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoia

Porrusalda

Porrusalda prestatzeko beste modu bat proposatu nahi dizuet oraingoan. Alde batetik, porrusalda egingo dugu; eta bestetik, makailua piperrakaz. Hasteko lapikoan oliba oliotan berakatzatza apur bat egin. Gero patata zatituak, porruak, azenarioa eta kalabaza gehitu. Eduki hau guztia apur bat sutan, urez estali eta su ez-tian egin arte itxaron (40 minutu inguru). Bestetik, zartaginean tipula potxatu ondoren, piper berdea eta gorria turetara zatiturik gehitu. Eginda dagoenean makailu papurtua gehitu eta egin.

Platera aurkezteko, porrusalda txinotik pasatu eta pure bat egin. Gainean, makailudun piperradari (xukatu aurretik) edalontzi batez forma emon eta purearen gainean ipini. Porruaren alde berdea tira fin-finetan ebaki eta su bizian frijitu. Plateraren gainean ipini gero. On egin! ^m

osagaiak (lau lagunentzat)

kilo erdi patata • bost porru • kalabaza zati bat • azenario bi • berakatz ale bi
250 gramo makailu • piper berde bat • piper gorri erdia • tipula bat



itsaso arana / jolastokikoa

Udarako

ardaoak eta beste edari batzuk

Uda, eta berarekin batera beroa eta hezetasuna heltzen direnean, jeneralean atseginagoak egiten zaizkigu ardao freskoak eta arinagoak. Uda kanpoan pasatzeko asmoa baldin badaukagu, komenigarria eta gainera ohitura ona ere bada bertako edariak probatzea. Herrialde guztiek daukate euren edari freskoa. Esaterako, Asturiasek sagardoa; gurean txakolina; Andaluzian *manzanilla*, *finoa* edota *barbadillo*; eta Galizian, *albariño* edo *ribeiro*. Zerrenda amagabea da. Esaera zaharrak dioenez: gorostian gorosti eta Donostian Donosti.

Bestetik, kaba berez hotza denez, oso erraz edaten da eta udan, gainera, alaigarria ere bada.

Ardaoa biltza edateari uzteko asmorik ez daukatenek edozein jatorri izendapeneko urteko ardao edan dezakete, apur bat fresko edan daiteke eta. Kriantzak ez dira astunak eta edatera gonbidatzen dute.

Jan aurretik, hau da, aperitibo moduan, apur bat ahaztuta dauden ohizko sifoi ardao edo *vermoutha* har daitezke, gure aho-sabaiak beti eskertuko ditu.

Hala ere, beroari aurre egiteko onena norberari on egiten dioten edariak hartzea da beti.

Neurriz edan eta uda ona pasa! ^m



Tanke taberna

Aro berriari ekin dio Algortako tabernak



Jose Rodriguez eta Alvaro Bermudo Tankeko buruek maiatzaren 13an ireki zuten taberna

Betidanik Algortako topalekuetako bat izan da, eta 35 urtetik gora dauzka daborduko. Alvaro Bermudo eta Jose Rodriguez algortarrak dauzkagu Tanke tabernaren ugazaba berriak. “*Ardura hartu dugu lagun batzuk eskaini zigutelako eta ondo ibil daitekeela badakigulako. Saiatzea da kontua, eta buru-belarri sartu gara*”, esan digute. Itxura berria eman diote tabernari (zuri-beltzez margoztu eta argi gehiago sartu dute): “*Jendea goizez, arratsalde eta gauez gustura egoteko lekua sortu gura izan dugu*”. Bide batez, herriko giroa suspertzea ere bada euren asmoetako bat, “*algortarrak kanpora joan ez daitezen*”.

Goizeko 10etatik goizaldeko ordu bietara aurki dezakegu zabalik egunero; aste-

akabuetan, berriz, apur bat beranduago zarratzen dute. “*Onain, zapatu eta domeka goizetan itxita egoten da, baina negozioan behin ondo kokatuko garenean, gure ideia orduan ere irekitzea da*”, diosku Alvarok.

Gauz kopak eta egunez pintxoak eskaintzen ditu taberna zaharberritu honek. Betiko pintxo klasikoak (urdaiazpikoa piper berdeagaz, makailua eta barrengorria, esaterako) landuagoak dauden pintxoakaz uztartzen dira barran: tipula melatua arrainagaz eta piperragaz, urdaiazpikoa galeper arrautzagaz eta tomatea ozpinolioagaz... Zorte on! ^m

TANKE TABERNA
Euskal Herria, 8 - Algorta

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador



- Zabalik egunero
 - Eguneroko menuak
 - Enpresa menuak
 - Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauz dastatzeko menua
- astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

VIEJO



kopak eta giro jatorria

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreniak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokoa
- Ortodontzia
- Periodontzia



Bidebarri 27, behea eskuinta
ALGORTA
94 94 430 76 96

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Estralurtarrak, alienak, martetarrak, izaki berdeak... Ez al da horiek guztiak baino arriskutsuagoa bere kidekoak akatzen dituen? Zabaldu begiak! Zientzia fikziozko film larregi ikusi dituzu azken bolada honetan!</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Sasoian zaudela uste duzu. Hala ere, sabelatzen dituzun patata frijitu, otarteko eta pizkek ez dizute batere onik egiten. Zure sabelak dagoeneko larrialdietako deia egin du. Ez duzu barazkijale bihurtu beharrik, baina...</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Ez dira betiko garai onenak. Ondo dakizu zuk hori. Beraz orain daukazuna ondo gozatu, eta denbora ahalik eta gehien apobetxatu beharko duzu. Datorrena datorrela, momentu onenen oroitzapena betiko gordeko duzu-eta.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Entzutea gogoko duzun musika hori zarata besterik ez dela diotsu amak. Egia esan, egun guztia gauza bera entzutea edonor aspertzeko modukoa da. Egiozu kasu apur bat amari eta lantzean behin aldatu erritmo hori.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Beri itxurak egiten ibiltzea lagunak enganatzea da, eta nekagarria. Ez duzu uste? Izan zaitez zu zeu, esan ezazu benetan pentsatzen duzuna eta ez besteek entzun gura dutena, izan zaitez zintzoa zeure buruagaz.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zabaldu gelako leihoa eta begiratu urrutira, baso urdinetara eta itsaso berdeetara. Bakoitzak erabakitzen du-eta zein koloretan ikusi gura duen eguna. Eskain izaziozu irribarre bat zeruari eta baliteke hark eguna argitzea.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Zaindari bako atean erraz sartzen da gola. Ez zara atezain fina izan. Gezur handi bat esan dizute eta zuk bete-betean sinistu duzu. Gezurra zeinek esan dizun asmatzeko erasora jo beharko duzu orain.</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ba al zenekien rockaz gain beste musika estilo batzuk badirela? Jazz, reggae, blues, rumba, soul... Zergatik ez dituzu bestelako erritmoak entzuten? Probatzeak ez dizu txarrik egingo, auskalo, agian gogoko izango dituzu.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Herriko kirol edo kultur talde batean izena eman beharko zenuke. Herrian ez dela ezer egiten kritikatzeko duzu, eta zuk zer egiten duzu? Taldekoek zure laguntza eskertuko dute eta zuk barrenak asetuko dituzu.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Zein da Atxagaren azken liburuaren izenburua? Zeini eskaini zioten Kortatuok <i>Sarri-sarri</i> kantua? Lehiaketa batean galderoi erantzuteko gai izango zinateke? Irakurtzea gaitza baino txertoa da.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Bidaia bat egiteko aukera edukiko duzu laster, luzea edo laburra izan daiteke, baina motxila ahalik eta arinen prestatu beharko zenuke. On egingo dizu etxetik urruntzeak, eta gainera primeran pasako duzu.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Ez zara Urkiolara arte joan baina zapata horiek nahiko urratuta daude, eros itzazu berriak. Horren ondotik, Urkiolara joateak ez dizu txarrik egingo, eta bide batez, bertako harriari birak eman ez eska ezazu bikotea.</p>


mungia
oKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO


LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

- Balakatuak, ferekatuak.
- Larruzko oinetako. Arrazoi.
- Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki.
- Bizkaiko herria. Garai.
- Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria.
- Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa.
- Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu.
- Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota.
- Trebea. Sortu zintuena.
- Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

- Langile klasea.
- Martxan jarriak.
- Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa.
- Asia Txikiko antzinatoko hiria. Asiako estatua.
- Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo.
- Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa.
- Bostehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko.
- Uztarriz lotu. Mila.
- Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzotxo. Amerikako estatua. Iodoa.



Soluzioak

I	N	N	U	N	S	T	A	S	V	A
K	A	V	A	O	I	A	I	A	I	A
V	M	A	V	O	I	A	I	A	I	A
L	A	L	A	L	A	G	A	R	I	G
I	K	U	N	V	L	E	L	Z	E	Z
B	T	R	B	A	B	A	B	L	A	B
N	U	R	I	V	A	V	I	R	I	R
O	V	A	V	K	I	V	I	G	A	T
L	R	O	A	V	A	T	E	L	N	I
L	O	I	Z	A	B	O	R	I	N	I
O	I	Z	A	B	O	R	I	N	I	N
L	A	Z	T	A	N	D	U	A	K	A

asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Juanita Gerrikabeitiaren semea
- Zezenzale porrokatua
- Anoetan egin zuen bere azken agerpen politikoa

> Aurrekoaren erantzuna: Juan Mari Atutxa
> Irabazlea: **Unai Imaz**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz
Jatetxe begetarianoa



Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



SORKUNDE GOIKOURIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Erandioko Goi-Alde dantza taldeak 40 urte

Talde honek 1965eko abuztuaren 15ean dantzatu zuen lehenengoz publikoaren aurrean Andra Mari egunean, herriko jaietan. Egun horretakoa da hain zuzen ere goiko argazkia, Erandio Goikoan aterata dago eta bertakoak edo hurbilekoak ziren dantzari gehienak.

Datorren abuztuaren 15ean, taldearen 40. urteurrena dela-eta, argazkian ikusten den toki berean erromeria modukoa antolatzeko asmotan dabilta goi-aldeetarrak. Helburua oso erakargarria da: urte guzti hauetan taldean egondako guztiak batzea, eta horrela, Goi-Alde familia osoa bat eginda egun ahaztezina pasatzea, dantzatuz jakina. Beste dantza taldeen (90 inguru) omenaldia jaso dute dagoeneko, maiatzaren 15ean ospatu zen Dantzari Egunean.

Azpitarratzekoa da argazkiko dantzarietako bat, Jaime Urriaga, beti egon dela taldeari lotuta eta gaur egun ere bada goela, oraingoan txikian irakasle modura. Hori martxa Jaime! Bestalde, taldearen hiru sortzaileak argazkian ere badaude: Intxaurbe anaiak (mutikoei irakasten zietenak) eta Jose Luis Orbe (neskatoen trebatzailea). Dena dela, taldea egiteko ideia Larrabatzuko Mariano Loroño abade jaunarena izan zen. Bera sortzaileak aurkitzen ahalegindu zen, trebatze saioetarako lekua utzi eta dirua ere ipini zuen.

Gaur egun Sorkunde Goikouria da Goi-Aldeko lehendakaria eta 90 dantzari inguruk osatzen dute bizi-bizirik dagoen taldea. Urrezko ezteiak gainean dituzue lagunok! Eutsi goiari eta zorionak! m

Zutunik: Andoni Lekunberri, Jose Luis Orbe, Itziar Aresti, Pili Zarraga, Argiñe Bilbao, Mari Antonia Astarloa, Maribel Morera, Rosa Mari Aurrekoetxea, Mari Tere Arberas, Yolanda Zubiaur, Jose Luis Intxaurbe *Kotxelu*, Xabier Aburto.

Makurtuta: Javier Intxaurbe *Tekla*, Ramontxu Ayo, Guillermo Berriatua, Iñaki Goikuria (GB), Javier Esteban Bidarte, Felix Olabarrieta, Joseba Elexpuru, Jesus Mari Ayo, Jose Felix Madariaga, Jaime Urriaga.

Argazkian falta direnak: Mikel eta Jesus Fermin anaiak.



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

[aitormenak]

EVA ARGIÑANO > gozogilea

“Kamera aurrean paratzea asko kostatu zitzaidan”

Testua: **Jon Urresti**



Defini ezazu zeure burua berba bitan bakarrik. Pertsona ona.

Zein animaliaz zatoz bat?

Txakurra edo zaldia, euren kabuz dabiltzalako.

Zein liburu idatziko zenuke?

Jendeari barre eragitea asko gustatuko litzaidake, Tom Sharpek *Wilt* liburuagaz niri eragin zidan bezala.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Alfonso Arauk zuzendu zuen *Como agua para chocolate* pelikulan.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Atentzioa ematen dit emakumezkoen jarrera edozein gerran. Miresgarriak iruditzen zaizkit laguntza emateko eta aurrera ateratzeko gaitasun horiek kaos eta txirotasun egoeratan.

Zure jakirik gogokoena. Barazkiak eta pasta.

Aitor dezakezun bizio bat. Lagunakaz ardoa hartzea eta berba egitea.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Leku asko daude, daramazun lagunartean arabera: nekazal-turismo bateko mendia eta lasaitasuna, Paris udaberrian edo Erroma udazkenean...

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Nahita min egitea.

Ezin zaitzke bizi...

Familia eta lagun barik. Nire bizitzan oinarritzko euskarriak dira.

Zer gordetzen duzu sakeletan?

Menda-hostoak. Mendian bat ikusten dudanean, patrikan sartzen dut uzten duen usain gozoarengatik.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Bat-batean politikoez ez dutela gutaz, euskaldunez, barbarik egiten, eta albiste ez garelara.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Amesgaiztoa da: kostata igotzen ditut eskailera batzuk, inguruan arrisku asko, oztupoak eta sua daudelako, baina gero hobeto jaisten ditut.

Zure azken erokeria.

Ez dut uste erokeriarik egiten dudanik. Berezia den zerbait egiten dudanean, natural egiten dut. “*Ze arrai!*” esaten dut eta aurrera. m

LABURREAN — Eguena asteko egunik gozoena dugu. Egun horretan, postre osasuntsu eta merke bat prestatzen irakasten digu Evak, Karlos nebagaz batera. Eta ahogozoa egiten zaigu, bizitza ezitzen digu, eta bide batez, apur bat zoriontsu ere egiten gaitu. Eva Argiñanok (Beasain, 1960) uste du jatordu on baten ginga postre egoki bat dela. Magia dirudi: lau osagairekin (esnea, arrautzak, irina eta azukrea) atzamararak miatzatzeko moduko bizkotxoia lor daiteke; baina magoek ez bezala, sukaldariek euren trikimailuak erakusten dituzte. Horietako batzuk zenbait liburutan (*Las tentaciones de Eva Arguiñano* eta *La pastelería de Eva Arguiñano*), eta zazpi urtez gerotik telebistan azaldu dizkigu. Hasieran asko kostatu zitzaion kameraren aurrean paratzea, “*lotsagatik, baina orain lotsagabeagoa sentitzen naiz. Gainera, Karlos ondoan izanda oso erraz egiten zait: huts egiten dudala ikusten badu, lagundu egiten nau. Sostengu handia daukat*”. Gaztetatik (ikasle ona ez ei zen), neba ospetsuari lagundu izan dio sutegiz sutegi: lehenengo, Zarauzko golf zelaiko sukaldetan; eta gero, orain dela ia 26 urte herri horretako hondartzaren ondoan zabaldu zuen jatetxean (gaur egun hotela ere bada). Karlosek telebistako abenturari ekin zionetik kolaboratzaile fidela izan da platoaren atzean zein aurrean.



WWW.SKATEPOOLPARTY.COM

